


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Zuzenbide Fakultatea
Facultad de Derecho

GRADU AMAIERAKO LANA

Zuzenbideko Gradua

2021-2022

Oinarrizko Errenta desberdinak:

**Espainako Estatuan aplikatzeko aukera aztertzen,
indarrean dagoen Bizitza Gutxienezko Errenta oinarritzat
hartuta**

Egilea: Jorge Hortelano Sanchez

Zuzendaria: Janire Mimentza Martin

LABURPENA: Bizitzen ari garen koronabirusaren pandemia gaitz asko sortu ditu eta eragiten dago mundu osoan zehar. Espainiar estatuaren kasuan, pandemiak eragin dituen efektu negatiboak, sakonagoak izan dira dagoeneko 2008. urteko krisialdi ekonomikoaren efektuei gehitu direlako. Beraz, pobrezia tasak maila ikaragarri batera ailegatu dira, herritarren arteko desberdintasunak ere areagotu dira, sozialak, kulturalak ekonomikoak besteak beste. Horregatik Estatuko gobernua koronabirusaren efektuak leuntzeko *Bizitza Gutxienezko Errenta* ezarri du maiatzak 29ko 20/2020 lege-dekretuaren bitartez, errenta hau gizarte bazterkerian daudenei zuzendutakoa da soilik. Errenta hau oso kritikatu izan da, praktikan oso zaila delako eskatzaileentzat hura eskatzea, soilik multzo bati zuzenduta dagoelako eta eskaera askori uko egin zaielako jende askok zailtasun asko izan dituelako eskaera egiterakoan. Gobernuak ezarritako errenta hain txarto funtzionatzeak eta egoera hain latza izateak eragin du oinarrizko errenta bat ezartzeko nahia areagotzea.

RESUMEN: La pandemia del coronavirus está creando muchos efectos negativos en todo el mundo. En el caso del estado Español las consecuencias de la pandemia han sido más profundas porque se han unido a los que se arrastraban de la crisis del 2008. Por lo tanto eso ha supuesto entre otras cosas que la tasa de la pobreza llegue a unos máximos impresionantes y que las diferencias sociales, económicas, culturales y demás aumenten entre la gente. El gobierno Español para paliar los efectos de la pandemia ha puesto en marcha el *Ingreso Mínimo Vital* que ha sido aprobado por el real decreto ley 20/2020 del 29 de mayo, que sólo está dirigido a la gente que se encuentra en exclusión social. Esta renta ha sido muy criticada porque en la práctica les es muy difícil a los solicitantes pedirla ya que han de cumplimentar muchas formalidades. Que la renta que ha puesto en marcha el gobierno haya funcionado tan mal y la situación sea tan crítica ha propiciado que se encienda la idea de poner en marcha una *Renta Básica* .

ABSTRACT: Coronavirus pandemic is creating many negative effects around the world. In the case of Spain the effects of the pandemic have been more deep because they have joined those from the 2008 recession. Therefore, this has meant, among other things, that the poverty rate has reached unreachable maximums and the gap between people has increased. The Spanish government to minimise the effects of the pandemic has put in motion the minimum living income approved on may' s 29th by 20/2020 royal decree law, which is only aimed at people who are in social exclusion. This income has been widely criticized because

it is very difficult for applicants to apply for it, because it is only aimed at a group of people and because many applications have been rejected. The fact that the income implemented by the government has worked so poorly and the situation is so critical has led to the idea of implementing a Basic Income.

AURKIBIDEA

1. Sarrera	5
2. Oinarrizko errenten azalpena: Bilakaera, ezaugarriak eta mota ezberdinak	6
2.1 Oinarrizko errenten bilakaera historikoa	6
2.2 Zertan datza oinarrizko errenta eta mota ezberdinen azalpena	7
2.3 Oinarrizko errentaren gorakada azkeneko hamarkadetan	10
3. Bizitzeko Gutxienezko errentaren ezarpena koronabirusaren pandemiak areagotutako arazoei aurre egiteko. “20/2020 maiatzaren 29ko lege dekretua aztertzen”	13
4. Espainiako konstituzioaren bermeak eta oinarrizko errenta ezberdinen kokapena	16
4.1 Espainiako Konstituzioaren bermeak oro har	17
4.2 Oinarrizko errenten kokapena eta bermea	19
4.2.1 Bizitza Gutxienezko Errenta	19
4.2.2 Partaidetza Errenta	20
4.2.3 Oinarrizko Errenta bigarren txekearen bitartez	20
4.2.4 Errentaren gaineko zerga negatiboa	20
4.2.5 Oinarrizko Errenta Unibertsala	21
5. Herritarren partaidetza bizitza ekonomikoan, kulturean, sozialean, eta politikoan: “Espainiako konstituzioko 9.2 artikulua aztertzen”	22
5.1 Herritarren bizitza ekonomikoa	23
5.2 Herritarren bizitza kulturala	26
5.3 Herritarren bizitza soziala	31
5.4 Herritarren bizitza politikoa	33
6. Espainiar Estatuko lan-merkatua: Langileen eta lanbideen egoera. “Espainiako konstituzioko 35. artikulua aztertzen”	36
6.1 Bizitza gutxienezko errenta	37
6.2 Partaidetza errenta	38
6.3 Oinarrizko errenta bigarren txekearen bitartez	38
6.4 Errentaren gaineko zerga negatiboa	38
6.5 Oinarrizko errenta unibertsala	39
7. Oinarrizko errenta unibertsalaren kontra dauden kritikak	40
8. Konklusioak	43
9. Bibliografia	45

1. Sarrera

Espainiar estatuak 90eko hamarkadaren erditik 2007. urtera arte bere egoera hobereena igaro zuen ekonomiaren aldetik. Eurora sarrerarekin batera (1999) hazkunde ekonomikoa gertatu zen espainian, garai horretan estatu espainola hazkunde ekonomikoa handienetakoa izan zuen. Horrek suposatu zuen Estatuko bizi-maila Europar Batasuneko hoberenenetakoa izatea. Denborarekin gero eta handiagoa egiten joan zena 2007. urtean maila gorenera ailegatuz. Hurrengo urtean tendentzia guztiz aldatu zen hasiera emanez 2008ko krisialdi ekonomikoa.¹ Krisialdi hau bereziki pairatu zuten garapen-bidean zeuden herrialdeak. Espainiar estatuan krisialdi honek, zenbait efektu negatibo eragin zituen, hala nola ekonomikoak, sozialak.

Krisialdiak eraginda desberdintasuna nabarmendu zen, beraz Espainiar Estatuko biztanle asko langabezia geratu ziren, eta lana mantendu ahal izan zutenek baldintza makalagoetan egiten zuten, lan gehiago eginez ordutegi luzeago batekin baina soldata baxuago baten truke. Honek suposatu du pobrezian eta gizarte-bazterkerian dauden zenbatekoak handitzea.

Azken urteotan krisialditik pixkana irtetzen genbilela, koronabirusaren pandemia mundiala etorri da. Pandemiak eraginda etxean isolatuta egon garenez, jende asko iturri ekonomikorik gabe geratu dira, hala nola ezinezkoa eginez alokairua ordaintzea, janaria erostea. Egoera honi aurre egiteko Nazio Batuen Erakundeak oinarrizko errenta unibertsala martxan jartzeko gomendioa eman du, 3. atalean garatuko dena. Aldiz Estatuko gobernuak erabaki du bizitzeko gutxieneko errenta ezartzea, bizitzeko gutxienezko baliabiderik ez duen jendearentzat. Badirudi gobernuan ezarritako errenta ez duela funtzionatzen, hura eskatzea oso zaila delako eta jende gutxiri ematen zaiolako.

Estatuko jende asko beharrean dagoela ikusita, lanean zein oinarrizko errenta den egokiena egoera hau hobetzeko aztertuko da.

Gauzak horrela, lehendabizi burua lanean kokatzeko *Oinarrizko Errenten* ezaugarriak, bilakaera eta mota ezberdinak aztertuko dira. Jarraian, Koronabirusak eragindako krisialdiari aurre egiteko Estatuko gobernuak ezarritako *Bizitza Gutxienezko Errenta* (aurrerantzean BGE) aztertuko da. Segidan, BGE eta gainontzeko oinarrizko errentek espainako konstituzioan eduki dezaketen lekua adieraziko da eta ondorioz kontuan harturik non kokatzen den errenta bakoitza, konstituziak dituen babes-maila ezberdinak adieraziko dira. Jarraian, BGE eta gainontzeko oinarrizko errenten artean, EK 9.2 artikuluan aurreikusitako

¹ ALONSO PEREZ, M. FURIO BLASCO, E. (2010). La economía española del crecimiento a la crisis pasando por la burbuja inmobiliaria. *Cahiers de civilisation espagnole contemporaine*. N.6.

berdintsuna eta herritarren partaidetza bizitza sozial, ekonomiko, politiko eta kulturean zein EK 35. artikuluan lanaren inguruan araututakoa bermatzeko zein den egokiena jorratuko da. Azkenik lan honen ondorioak azalduko dira.

2. Oinarrizko errenten azalpena: Bilakaera, ezaugarriak eta mota ezberdinak

Oinarrizko errentak historikoki ezezagunak izan dira publiko orokorrarentzat, soilik gai horretan adituak ziren pertsonak, ezagutzen eta lantzen zituzten. Baina joera denborarekin aldatuz joan da, horren arrazoa azken urteetako krisialdi ekonomikoak izanez, hain zuzen, 2008. urtekoa eta pandemiak eragiten dagoena. Krisialdi horien efektu garrantzitsuenak gizarte-bazterkeriaren eta desberdintasunaren hazkundera izanez. Gizarte-baztertua, gizartetik at dauden pertsona multzoak dira bizitza ekonomikoan, politikoan, sozialean, kulturean eta instituzionalean parte hartzeko ezintasuna dutenak.² Herritarren arteko desberdintasunak krisialdiei esker etengabe hazten doaz aberatsak aberatsagoak bihurtuz eta maila erdiko familiak behe maila familiak bihurtuz.

Krisialdiak eragindako desberdintasunak eragin dute oinarrizko errenten ospea gizartean handitzea. Ospearen ondorioz, oinarrizko errenten inguruko elkarteak eta mugimenduak martxan jarri dira. Jendeak uste duelako errenta horien laguntzaz haien egoera erabat hobetu dezaketela.

2.1 Oinarrizko errenten bilakaera historikoa

Historikoki oinarrizko errenten lehenengo agerpena XVI. mendean eman zen, hain zuzen 1516. urtean, Tomas Moro pentsalariak idatzitako “Eutopia” izeneko liburuan. Bertan oinarrizko errenta jorratu zen, hain zuzen unibertsala. Izan ere, liburu horretan, hiri guztietan dena publikoa da eta hiri bakoitzean pertsona kopuru berdina bizi dira, 10 urtero hiritar batzuk hiriz aldatzen direlako, hiri guztietan hiritarren oreka mantentzeko.³ Tomas Moreoren liburu honetan oinarrizko errenten lehenengo agerpena dela agerikoa da aldiz, oinarrizko errenta unibertsalaren (aurrerantzean OEU) lehenengoa delaren alde zenbait autorek ez daude ados haien usteetan OEU jatorria XIX. mendean dagoelako, Balduino erregearen elkarteak 1984. urtean iragarri zuen lehiaketan irabazi zuen liburuan, espresuki Charles Fourieren

² ANDRADE RUBIO, K.L. (2012). *Exclusión social y emigración en el ejido de San Pablo*. Universidad autónoma de tamaulipas. 63 orr.

³MADRID, C. *Historia de la Renta Básica Universal*. elquintopoder. <https://www.elquintopoder.cl/economia/historia-de-la-renta-basica-universal/>. (Kontsultatuta 2021.02.24).

kolektiboak, Boulanger, Defeyt, Monees eta Van Parijs osatutakoa, aurkeztu zuten lana, “Lanaren Etorkizuna” izenekoa. Lan horretan oinarrizko errentaren ezarpenaren alde egin zuten, haien helburuak horren inguruko eztabaida bat sortzea izanik.⁴

Oinarrizko errenta jorratu zuen bigarren pertsona Juan Luis Vives filosofo espainiarra izan zen XV. mendean, espainian oinarrizko errentaren inguruan hitz egin zuen lehenengoa. Bera izan izen pertsona babesgabeen alde estatuaren laguntza sozialak ematea planteatu zituen lehenengoa.⁵

Gauza ez zen hor geratu eta XV. mendean Jhon Locke eskubide giza planteatu zuen norberaren ondasunaz gozatzea, eta XVI. mendean Thomas Paine politikaria errenta baten aldekoa zen 21 urte baino gehiago dituzten pertsonentzat, baita pentsio baten aldekoa gutxienez 50 urte zutenentzat.⁶ Hauek ez ziren izan oinarrizko errenta jorratu zuten autore bakarrak, denbora pasa ahala idazle, pentsalari, politiko eberri gehiago haien ideia plazaratu zuten oinarrizko errenten inguruan.

XX. mendean, 1986. urtean, hasiera eman zioten *Europako Oinarrizko Errentaren Sareari*. Sarearen helburua oinarrizko errentaren ideia munduan zehar zabaltzea zen, gizarteak oinarrizko errenta ezagutzeko aukera izanik. Horretarako bi urtean behin oinarrizko errentaren inguruko biltzarrak egiten hasi ziren europako toki ezberdinetan. Sarea Bartzelonan ospatu zuen biltzarrean, 2004. urtean, erabaki zuten sarearen izena aldatzea. Hau da, Europako oinarrizko errentaren sarea izatetik Munduko oinarrizko errentaren sarea izatera igaro zen, biltzarrak mundu osoan zehar egiten hasiko zirelako. Izan ere, hurrengo biltzarra Hegoafrikan egin zuten. Sareak beste aldaketa garrantzitsu bat jasan zuen 2016. urtean, urte horretatik aurrera biltzarrak urtero egiten hasi zirelako.⁷ Pasadan urtekoa izan ezik pandemiak eraginda.

2.2 Zertan datza oinarrizko errenta eta mota ezberdinen azalpena

Munduan ez dago oinarrizko errenta bakarra, modu askotako oinarrizko errentak existitzen dira. Oinarrizko errenta bakoitzak ezaugarri batzuk ditu gainerako errentatik desberdintzen dituenak. Esaterako desberdintasun horien artean aurkitzen dira besteak beste; pertsona bakoitzari ematen zaion zenbatekoa, errentaren hartzaileak, errentaren maiztasuna. Baina azken finean oinarrizko errenta mota guztiek funtsezko definizio bat partekatzen dute.

⁴ REY PÉREZ, J. L. (2020-08-25). Renta básica universal. *Eunomia*, 237–257 orr.

⁵ MADRID, C. (2020-05-15). *Historia de la Renta Básica ...* Op. Cit.

⁶ Ibidem

⁷ BIEN. *About BIEN*. <https://basicincome.org/about-bien/>. (Kontsultatua 2021.03.15).

Honako hau, oinarrizko errenta bat gizabanakoei modu erregular batean (hilero, hiruhileko, urtero...) ematen zaien diru kopuru bat da.⁸

Oinarrizko definizio bat partekatzen duten arren, hona hemen oinarrizko errenta mota desberdinen azalpen eta azterketa sakonago bat:

2.2.1 Oinarrizko errenta *partziala*

Indibidualki heldu guztiei ordaindutako aurrerakina da. Partziala du izena, ordainketaren zenbatekoa, bakarrik bizi den pertsona bat bizitzeko behar duen kopurua baino txikiagoa izango delako. Oinarrizko errenta partziala oso erabilgarria izan daiteke OEU bat ezarri nahi duten edota ezartzea pentsatzen ari diren estatuentzat, bere emaitzen arabera posiblea izango delako etorkizunean OEU ezartzea eraginkorra izango den edo ez jakitea. Beraz OEU hasieratik ezarri beharrean oinarrizko errenta partziala ezartzea komenigarriagoa izango da errenta honek OEU izango dituen emaitzak ikusiko direlako eta errenta partziala ezartzea ia galerarik ez duelako, bere finantziaketa ez delako oso handia. Errenta partzialari ezagutzen zaizkion beste abantailen artean bereizten dira hurrengoak; txirotasunaren zein langabeziaren tranpak dezente murrizten dituela eta errenta ematerako orduan sortu ahal den kaosa sahiesten duela bere izaera indibidualari esker.⁹ Badaude ere, beste oinarrizko errenta partzialak, errentaren kopuruan oinarritzen ez direnak. Hain zuzen, gizarteko talde bati zuzendutako errenta ere oinarrizko errenta partziala izango da. Horien artean famatuenak pentsiodunei zein umeei zuzendutakoak dira.¹⁰ Esaterako Alemaniako politikariek umeen aldeko errenta ezartzea promestu dute azkeneko hauteskundeetan.

2.2.2 Partaidetza errenta

Partaidetza errentaz baldintzazko oinarrizko errenta bat da. Errenta honen onuradunak gizartean parte hartzen duten helduak dira, eta gizartean parte-hartzen daudela ulertuko da hurrengo kasuetan: Ume zein heldu baten zaintza burutzean, lan-formakuntza egitean, borondatezko lana egitean, ordaindutako lana burutzean besteak beste. Talde honen barruan sartuko dira ere parte hartzeko ezgaituak daudenak osasun zein desgaitasun arazoek eraginda. Aipatzekoa da baldintzazko errenta bat denez gizartean parte hartzen ez dutenek ez dutela errenta hau jasoko. Errenta honen zailtasun nagusietako bat, gizartean zeinek parte hartzen

⁸ STANDING, G. (2018). *La renta básica un derecho para todos y para siempre*. Pasado y presente. 13 orr.

⁹ VAN PARIJS, P., VANDERBORGHT, Y. (2017). *Ingreso básico una propuesta radical para una sociedad libre y una economía sensata*. Grano de sal. 216-220 orr.

¹⁰ MORENO MARQUEZ, G. (2008). *Crisis y reconstrucción del estado del bienestar las posibilidades de la renta básica de ciudadanía*. Eusko jaurlaritz. 139-143 orr.

duten bereiztea izango da, oso zaila izango delako jakitea esaterako etxeko lanak burutzen dituztenek ongi burutzen dituzten edo ez.¹¹

2.2.3 Oinarrizko errenta *bigarren txeke baten gisa*

Errenta hau bereziki famatua izan zen 90. hamarkadan, hain zuzen Frantzian. Errenta honek daukan muin nagusia langabezia-tasa erabat murriztea da, horretarako ordaindutako lanaldi osoa daukaten langileek bere lanaldia erdira aldatu beharko dute. Horrek ekarriko du, enpresek langabezian dagoen jendea kontratatzea lanaldi erdiz, jada enpresan zeuden eta lanaldia murriztu duten langileek aurretik burutzen zituzten lanordu guztiak bete arte. Lanaldia murriztu duten langileek irabazteari utzi dutena estatuak ordainduko die, bigarren txeke izeneko errenta honekin. Horregatik errenta hau soilik jasoko dute ordaindutako lanaldi erdia egiten duten langileek. Errenta honen finantzaketarako langabezian zeudenei eman behar zaien laguntzetatik aurreztutakoa eta langabezian zeudenak lan egiteagatik ordaindutako zergak erabiliko dira.¹²

2.2.4 Errentaren gaineko zerga negatiboa

Errenta hau estatuak sistema fiskaletan oinarritzen da, hain zuzen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan. Zera da gaia, estatuak biztanleek aurkezten dituzten errentaren aitortzearen zergatik libre egongo den zenbateko bat ezarriko da, errentaren aitortzearen kopuru horretara ailegatzen ez diren biztanleak pobrezia mailan daudela ulertuko delako. Beraz errentaren aitortzearen aurreikusitako minimoa baino diru-sarrera gehiago aurkezten dituzten herritarrek zergak ordaindu beharko dituzte, aldiz haien errenta aitortzearen minimo horretara ailegatzen ez direnak ez dituzte zergarik ordaindu beharko eta gainera txirotasunetik irteteko estatuak emandako errenta konpentsatzaile bat jasoko dute. Errenta honek dituen helburuetatik nagusia txirotasun-tasa murriztea baita.¹³

2.2.5 Baldintzarik gabeko OEU

OEU ere estatuak ordaindutako diru-sarrera bat da, herrialde bateko herritar guztiei ordaintzen zaiena, egoiliar nazional zein migrantei. Errenta hau estatuak ematen die herritarrei erregulariki kontuan izan gabe hartzaileen egoera zein den, berdin diolako pertsonak lanean, langabezian, ikasten egotea edota helduak, umeak edo abereak izatea baita maila ekonomiko desberdinak eukitea, guztiek errentaren onuradunak izango direlako.¹⁴ Errenta honen ezaugarri gisa hurrengo hauek aurreikusten dira: Aldizkakoa, diruzkoa,

¹¹ ATKINSON, A.B. (2017-12-06). Reducing poverty and inequality through tax-benefit reform and the minimum wage. *Springer*: 308orr.

¹² RAVENTOS, D. (2007). *Las condiciones materiales de la libertad*. El viejo topo. 160-162 orr.

¹³ MARTINEZ ALVAREZ, J. (2010). *La escalera de jacob analisis de la viabilidad del impuesto negativo sobre la renta*. Tirant lo blanch. 183-195 orr.

¹⁴ STANDING, G. (2018). *La renta básica...* Op. cit 13-17 orr.

baldintzarik gabekoa, unibertsala eta banakakoa izatea. *Ezaugarrien* zergatia hobeto ulertzeko banan banan azalduko ditugu jarraian; Lehenengo ezaugarria oinarrizko errenta gehienak duten ezaugarri bat da, *aldizkakoa* izatea, hots onuradunek errenta modu erregular batean jasotzea; Bigarren ezaugarria errenta *diruzkoa* dela da, diru sarrera gisa dirua soilik jasotzen delako, Hirugarren ezaugarria errenta *baldintzarik gabekoa* izatea, hartzaileek ez dute betekizunik bete behar errenta jasotzeko; Laugarren ezaugarria *unibertsala* izatea, hiritar guztiei ordaindutakoa edozein izanda bere egoera familiarra, ekonomikoa, laborala hala nola eta Bosgarren ezaugarria *indibidualki* ordaintzea bizikidetzarik saritu gabe.¹⁵ Azkenik aipatzekoa da. errenta honen kopurua bideratuta dagoela herritarren bizitza duin bat lortzera. Oinarrizko errenta mota ezberdin asko egon arren, oinarrizko definizio bat partekatzen dute aurretik aipatu den moduan. Oso antzekoak dira ere oinarrizko errentak dituzten helburuak, guztiak bizimodu duin bat lortzera eta txirotasunarekin amaitzera bideratuta baitaude.

2.3 Oinarrizko errentaren gorakada azkeneko hamarkadetan

Azkeneko denboraldian oinarrizko errentaren gaineko interesa asko igo da gizartean, eta ez soilik Europan, mundu osoan zehar ere. Interesaren igoera hori eskertu behar zaio *Munduko Oinarrizko Errentaren Sareari*, herrialde bakoitzean egindako biltzarrak asko lagundu dutelako oinarrizko errenten ideia zabaltzen. Hori dela eta, herrialde bakoitzean *oinarrizko errenten* aldeko elkarteak sortu dira.

Askok lagundu du ere interesa handitzen zenbait herrialdetan martxan jarritako frogazko-proiektuak. Esaterako, Europan Finlandian 2016. urtean eta Bartzelonan 2017. urtean proiektuak martxan jarri dituzte.

2.3.1. Finlandiako proiektua

Langabezian zeuden 2000 pertsonari zuzenduta zegoen, eta bi urte iraun zuen. Bi urte horietan 560€ hilean ordaindu zizkieten onuradunei. Emaitzei begira, ez zen aldaketa handirik egon langabeziari begira, hobekuntzak bereziki nabaritu ziren ongizatean. Proiektuaren onuradunek ongizate hobeago bat izan zuten eta gainera haien osasun mentala hobeago izan zen, tristura eta depresio gutxiago izan zutelako.¹⁶

¹⁵ RAVENTÓS, D.(2021). *La renta básica por que y para que*. Catarata. 19-23 orr.

¹⁶ KANGAS, O., JAUHAINEN, S., SIMANAINEN, M., & YLIKANNO, M. *Evaluation of the Finnish Basic Income Experiment* (2020:15). The Ministry of Social Affairs and Health. https://julkaisut.valtioneuvosto.fi/bitstream/handle/10024/162219/STM_2020_15_rap.pdf?sequence=1&isAllowed=y. (Kontsultatuta 2021.03.21).

Europar egindako frogazko-proiektuak ez dira bakarrak, Europatik at ere hainbat proiektu egin dira, besteak beste Asian eta Afrikan. Hain zuzen, Keniako eta Indiako herrialdetan.

Kasu hauetan ere proiektu hauek soilik talde bati zuzenduta daude ez herritar guztiei.

2.3.2. Keniako proiektua

Bertan aurrera eramaten ari den proiektua berezitasun nabari bat dauka, gobernu kanpoko erakunde batek finantziatzen duela. Hain zuzen, GiveDirectly izena daukan GKE bat. Gainera, proiektua baldintza batzuk betetzen dituzten pertsona talde bati zuzenduta dago. Oraindik proiektua martxan dago, beraz ikusi izan dira koronabirusaren pandemiaren garaian egon diren emaitzak. Proiektuak pandemian izandako eragina xumea izan da, hala ere onuradunen ongizatea pixka bat hobetu da, gainera onuradunek gainontzeko biztanleak ez bezala, jasotako diru-sarrerari esker aukera izan dute oinarrizko beharrak asetzeko, onuradunei ez zekarten segurtasun bat emanez.¹⁷

2.3.3. Indiako proiektua

Proiektua urte bat baino gehiago iraun zuen, bertan zoriz aukeratutako zenbait herriko helduei eman zieten diru-sarrera. Proiektu honen emaitzak hurrengoak izan ziren: Onuradunek jasotako ordainketarekin haien etxebizitzak hobetu zituzten, elikadura bezalako oinarrizko beharra bete zuten, eskoletako asistentzia igo zen eta soldatapeko lanak bertan behera utzi zituzten haien lursailak lantzeko.¹⁸ Aurreko emaitzez gain, proiektu honek eragin zuen bertako emakumeak autonomia irabaztea. Proiektuaren hasieran emakume guztiak beloa eramaten zuten, baina hilabete batzuk igaro ahala joera guztiz aldatu zen eta emakumeak belorik ez eramaten hasi ziren. Horren arrazoia zen emakumeek proiektuarekin bere dirua zeukatela eta ondorioz ez zutela nagusiek esandakoa bete behar, diru horrek erabakiak hartzeko autonomia eman zielako.¹⁹

Indiako proiektuaren eta Keniako proiektuaren emaitzek nahiko antzekoak dira. Nabaritzen da, bi proiektuak gizarte txiroa bizi den tokietan egin dutela. Aipatzekoa da ere Indiako zein Keniako proiektuen emaitzak, ezin direla guztiz alderatu espainiar estatuan oinarrizko errenta baten bat ezartzekotan izango zituen emaitzekin. Espainiar Estatuko ekonomia, kultura, errealitate soziala besteak beste, ez daukalako zerikusirik India zein Keniako herrialde horiekin.

¹⁷ BANERJEE, A., FAYE, M., KRUEGER, A., NIEHAUS, P., SURI T. (2020-12-08). *Effects of a Universal Basic Income during the pandemic*. GiveDirectly. https://econweb.ucsd.edu/~pniehaus/papers/ubi_covid.pdf.

¹⁸ SCHJOEDT, R. (2016). *India's Basic Income Experiment* (N.o 21). Development Pathways Limited. 1-9 orr.

¹⁹ STANDING, G. (2018) *La renta básica un derecho...* Op. Cit. 61-62 orr.

2.3.4. Alaskako proiektua

Jarraian martxan dagoen OEU baten funtzionamendua aztertuko da. OEU batekin orain arte antzekotasun gehien dituen, Alaskako permanent fund-a, hala eta guztiz ere ezin zaio esan OEU bat dela bere zenbateko eta behin-behinekotasunagatik. Alaskako errenta gobernua ordaintzen dio urtero heldu guztiei, errenta gobernua petrolioaren salmentan irabazitako diruarekin finantziazten da. Onuradunek jasotzen duten kopurua aldakorra da, petrolioak merkatuan daukan prezioaren arabera zehazten baita. Errenta honen alderdi negatiboa da petrolio egunen batean amaituko dela. Emaitzek adierazten dute hezkuntza hobera egin duela asistentzia igo delako, abandonua murriztu delako eta per capita errenta baxuko ikasleen hobekuntza.²⁰

Nabaria da oinarrizko errentaren inguruko interesa igo dela azkeneko sasoiaren baita abantailak dakartzala gizartearekiko eta ekonomiarekiko besteak beste. Baina oinarrizko errentaren gorakadaren frogarik argiena Alemanian martxan jarri berri duten proiektua da.

2.3.5. Alemaniako proiektua

Mein Grundeinkommen izeneko erakunde batek eta Alemaniako ikerkuntza ekonomikoko institutua martxan jarrai dutena hiru urte iraungo du, 2021. urtetik 2024. urtera arte. Proiektuan parte hartuko dute 1500 pertsona, adin-nagusiak eta Alemaniako egoiliarak izan behar direnak. Parte hartzen dutenak, bi taldeetan bereiziko dira. Talde batean 122 pertsona egongo dira eta bestean 1380, soilik lehenengo taldean dauden pertsonak jasoko dute errenta, gainerako pertsonak, hots bigarren taldekoak, bi taldeen arteko datuak alderatzeko balioko dute. Hori bai bi taldeek galdetegi batzuk egiteko beharra izango dute, bakoitzaren emaitzak aztertzeko. Errentaren onuradunek 1200 € jasoko dituzte hilabetero proiektua dirauen 3 urtetan zehar. Proiektu hau 150000 boluntario inguru egindako dohaintzen bitartez finantziatuko dute.²¹ Proiektu hau, koronabirusaren pandemiak gizartea, ekonomia besteak beste gogor astindu ondoren egiten den lehenengo da. NBE aholkuak jarraituz, pandemiak eragindako eta eragiten dituen efektuei aurre egiteko tresnarik egokiena NBE usteetan oinarrizko errenta bat ezartzea delako.

²⁰ TENA, A. (2018-11-14). La Renta Básica Universal basada en la evidencia. *Política y Sociedad*, 55 (3). 851-871 orr.

²¹ PILOTPROJEKT GRUNDEINKOMMEN. *Asi es como funciona*. https://www-pilotprojekt--grundeinkommen-de.translate.google.com/studiel?_x_tr_sl=de&_x_tr_tl=es&_x_tr_hl=es&_x_tr_pto=ajax,se,sc. (Kontsultatuta 2021.06.10).

3. Bizitzeko Gutxienezko errentaren ezarpena koronabirusaren pandemiak areagotutako arazoei aurre egiteko. “20/2020 maiatzaren 29ko lege dekretua aztertzen”

Koronabirusaren pandemia izugarritzko mina eragin du eta eragiten dago mundu osoan, Txinan jaiotako pandemiak, hildako asko utzi ditu munduko herrialde gehienetan baita efektu negatibo ugari, ekonomikoak, sozialak besteak beste.

Espainiar estatuan adibidez, 2020-ko lehenengo hiru hiruhilekotan 195000 unitate enplegatzaile inguru desegin dira. Porrot egin duten enpresak, txikiak dira, 1-5 langile bitartekoak, gehienak Andaluzian, Extremaduran eta Kanariar uharteetan kokatutakoak gainera. Autonomoen kasuan, 330000 autonomo inguru haien aktibitate laboral bertan behera utzi behar izan dute. Autonomoen kasuan bereziki Zaragozako hiria izan da kaltetuena.²² Datu hauetatik dirudi ondorioztatu daitekeela pandemiak sorrarazitako krisialdiarengatik langabeziaren tasa igo dela.

Azken urte honetan ere, pandemiak eraginda, elikagaien bankuen eskaria %50-a igo egin da. Estatuko elikagaien bankuetan 1,6 miloi biztanleen premiei erantzun behar izan diote eta.²³

Koronabirusaren pandemiak krisialdi ekonomiko eta sozial bati bide eman diola agerikoa da, horren berri jakiteko nahikoa da edozein herriko egunerokoa ikustea. Hala nola, pandemia aurretik zabalik zeuden negozio asko dagoeneko itxi egin behar izan dutela, elikagaien bankuen ilara handitzen joan dela. Hain kaskarra da egoera Estatuko gizartearen % 26 txirotasunean zein gizarte bazterkerian sartzeko arriskuan dagoela.²⁴ Baina oraindik makalagoa da estatuko umeen egoera, hain zuzen 16 urtetik beherako umeen kasua, % 26 pobreziaaren atalasearen azpitik bizi direlako.²⁵

Beraz, krisi honi aurre egiteko Nazio Batuen Erakundeak OEU ezartzearen aldekoa da, haien ustez pandemiak eragindako desberdintasun sakonekin amaitzeko tresnarik egokiena delako. Gainera hainbat efektu positibo ugari ekarriko lituzke OEU krisialdi honi aurre egiteko, esaterako OEU lan egiteko, aurrezteko eta inbertitzeko gogoak piztuko dizkio jendeari. Era

²² INSTITUTO NACIONAL DE ESTADÍSTICA (INE). *Estadística experimental – Coyuntura demográfica de empresas*. https://www.ine.es/prensa/experimental_codem.pdf. (Kontsultatua 2021.03.25).

²³ ORDENANA, C. *La federación de bancos de alimentos alerta de que la demanda de alimentos ha aumentado 50% en el último año*. Bizkaiko elikagaien bankua. <https://www.bancali-biz.org/la-federacion-de-bancos-de-alimentos-alerta-de-que-la-demanda-de-alimentos-ha-aumentado-un-50-en-el-ultimo-ano/>. (Kontsultatua 2021.04.27).

²⁴ 20/2020 errege dekretua ezartzen duen Bizitzeko Gutxienezko Errentaren 6. xedapen orokorra Espainiako Aldizkari Ofiziala 2020ko maiatzaren 29an argitaratutakoa

²⁵ 20/2020 errege dekretua ezartzen duen Bizitzeko Gutxienezko Errentaren 1. xedapen orokorra Espainiako Aldizkari Ofiziala 2020ko maiatzaren 29an argitaratutakoa

berean, OEU eragingo du umeen asistentzia eskolan areagotzea eta abandonu tasak murriztea, baita bereziki lagungarria izan daiteke txirotasunean zein gizarte bazterkerian dauden pertsonentzat errenta horri esker egoera horretatik irteteko aukera izango dutelako segurtasun ekonomiko bat irabaziz. OEU martxan jartzeko oso lagungarria izan daiteke aberatzei baita multinazionalei ordaindu behar dituzten zergen kopurua igotzea. Nazio Batuen Erakundearen usteetan ez dago beste alternatibarik pandemiari aurre egiteko, eta OEU ez ezartzeak ekarriko du iskanbila eta gatazka sozialen hazkundera baita mutur muturreko alderdien ugaritzea.²⁶

Pandemiak eragindako krisialdia hasi zenetik, ez da jarraitu Nazio Batuen Erakundeak OEU ezartzearen alde emandako gomendioa. Herrialde bakoitzak bere herritarrentzako laguntza bat ezarri du, baina laguntza hori guztietatik ez dago emakumeei zuzendutako bat ere ez. Emakumeena kolektibo guztietatik gehien kaltetuetako bat da, hain zuzen emakumez beteriko lanak lanpostu gehien galdu dituztenak dira beraz haien diru sarrerak asko jaitsi dira. Diru-sarreraren galerarekin erlazioa duen, eta emakumeek gehien pairatu duten arazoa genero-indarkeriaren hazkundera da, independentzia ekonomikoa galdu dutenez ezinezkoa egiten zaie mendeko erlazio horretatik irtetea. Nazio Batuen Erakundearen egoera honi amaiera emateko emakumeen aldeko Oinarrizko Errenta Partzial bat ezartzearen aldekoa da, ez aplikatzea 20 urteko atzerapena ekarriko duelako.²⁷

Aldiz Espainiako Estatuko gobernuak, herritarren arteko desberdintasuna gero eta handiagoa bihurtzen zegoela ikusita eta txirotasunaren zein gizarte-bazterkeriaren tasak gora zihoazela ikusita, BGE ezartzea erabaki zuen. Errenta hau aurretik aipatu den oinarrizko errenten mota baten eredua da, hain zuzen oinarrizko errenta partzial bat da, NBE emakumeen alde ezarri nahi duen bezalakoa. Baina ez kopuruan oinarritutakoa baizik eta gizartearen multzo bati zuzendutakoa, hain zuzen gizarte bazterkerian daudenei. BGE izeneko oinarrizko errenta partzial hau, gobernuak ezarritakoa, 2020ko maiatzaren 29ko errege dekretuaren bitartez arautu egiten da. BGE ezartzen duen lege-dekretua sei xedapen orokorrez, bederatzi kapituluetan zehar aurreikusten diren hogeita hamazazpi artikuluz, bost xedapen gehigarri, zazpi xedapen iragankorrez, xedapen indargabetzaile batez eta hmaika azken xedapenez osatuta dago.²⁸

BGE jaio egiten da, txirotasun zein gizarte bazterkeria tasak murrizteko eta konstituzioko 9.2 artikuluan aurreikusten den gizarte guztiaren partaidetza bizitza ekonomikoan eta sozialean

²⁶ NAZIO BATUEN ALBISTEAK. Los argumentos a favor de una renta básica universal. <https://news.un.org/es/story/2020/07/1477601>. (Kontsultatuta 2021.04.11).

²⁷ NAZIO BATUEN ERAKUNDEA EMAKUMEA. Trabajo y prioridades. <https://www.unwomen.org/es/about-us/about-un-women>. (Kontsultatuta 2021.04.11).

²⁸ 20/2020 errege dekretua ezartzen duen Bizitzeko Gutxienezko Errenta Espainiako Aldizkari Ofiziala 2020ko maiatzaren 29an argitaratutakoa

bermatzeko, baita lan zein hezkuntza eremuetan errekurtsio falta eta aukeren artean dagoen erlazioa ezabatzeko.²⁹ BGE oinarrizko errenta partzial bat dela agerikoa da, errenta ekonomiko hau, txirotasunean eta gizarte bazterkerian daudenei edota jausteko arriskuan daudenei zuzentzen zaielako, konturik hartu gabe unitate batean edo bakarrik bizi diren.³⁰ Era berean, ez dute BGE jasoko, 23 eta 65 urte bitarteko adin-tartetik kanpo daudenak, beste pertsona batekin ezkondu daudenak edo izateko bikotea dutenak, baita estatuak finantziatzen dituen prestazio sozialen, osasuneko, etab-en onuradunek etengabeak direnean.³¹

BGE hobeto ezagutzeko, jarraian errenta honen ezaugarri garrantzitsuenak aipatuko dira: Lehenengoa, onuradunei *errenta minimo* bat bermatzen zaie, bigarrena, onuradunek BGE jasotzen jarraituko dute beraien egoera ekonomiko kaskarra eta errenta jasotzeko bete behar diren *baldintzak mantentzen* dituzten bitartean, hirugarrena, errenta hau *bideratuta* dago, gizarte bazterkerian dauden *personak* berriz *gizarteratzera*, laugarrena, BGE besterenezina da eta bosgarrena, BGE *jaso ahal izateko* gizabanakoek *eskaera* bat *burutu* beharko dute.³²

Azken ezaugarriak aurreikusten duen moduan BGE jaso ahal izateko, errenta jaso nahi dutenek hura eskatu beharko dute, baina eskaera egin aurretik ezinbestekoa izango da BGE eskuratu ahal izateko bete behar diren baldintza guztiak beteta izatea. Jarraian azalduko dira eskatzaileek eskaera egin aurretik bete behar dituzten baldintzak; Hasteko eskatzailea eskaera aurkeztu aurreko urtean *egoitza legala estatu espainolean* izan beharko du; Orobat, eskatzailea *kalteberatasun ekonomikoko egoera* batean egon behar du, diru-sarrera zein ondare ezak eraginda; Era berean jasotzeko eskubidea izan dituzten *pentsio eta dirulaguntza guztiak eskaturik eduki* beharko dituzte; Eta azkenik bete behar duten azkeneko baldintza zera da, adin nagusiak edo emantzipatutako adingabeak *lanean ez egotekotan enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egon* beharko dira.³³

Baldintza guztiak betetzen dituen eskatzailea, BGE jasotzeko eskaera aurkeztu dezake gizarte segurantzaren egoitz elektronikoan, baldintzak betetzen dituela egiaztatzen dituen dokumentuekin batera. Jarraian gizarte segurantzaren institutu nazionalak eskatzaileak

²⁹ 20/2020 errege dekretua ezartzen duen Bizitzeko Gutxienezko Errentaren 3. xedapen orokorra Espainiako Aldizkari Ofiziala 2020ko maiatzaren 29an argitaratutakoa

³⁰ GONZALEZ ORTEGA, S., BARCELON COBEDO, S., (2020), *El ingreso mínimo vital comentarios al real decreto-ley 20/2020, de 29 de mayo*, Tirant lo blanch, 27-28 orr.

³¹ 20/2020 errege dekretua ezartzen duen Bizitzeko Gutxienezko Errentaren 4.artikulua Espainiako Aldizkari Ofiziala 2020ko maiatzaren 29an argitaratutakoa

³² 20/2020 errege dekretua ezartzen duen Bizitzeko Gutxienezko Errentaren 3.artikulua Espainiako Aldizkari Ofiziala 2020ko maiatzaren 29an argitaratutakoa

³³ Espainiako Aldizkari Ofiziala 2020ko ekainean argitaratutako 20/2020 errege dekretua ezartzen duen Bizitzeko Gutxienezko Errentaren 7. artikulua.

baldintza guztiak betetzen dituela aztertuko du, eta hala izatekotan BGE onuraduna bihurtuko da.³⁴

Jada gizarte segurantzaren institutu nazionalak eskatzaile baten eskaerari baietza emanaz gero, gizabanako hori errentaren onuraduna bihurtuko da eta beraz errentaren dirulaguntzak jasotzen hasiko da. Hain zuzen urtean 5538 € jasoko ditu, hots 400 € inguru hilabetero.³⁵

Errentaren azalpenarekin bukatu ondoren aipatzekoa da BGE hainbat denbora daramala martxan ezarri zenetik, eta denbora tarte honetan BGE nahiko kritikatu izan dela, eskatzaileen usteetan traba asko zeudelako BGE eskaera egiterako unean. Traba horien artean bereizten dira hurrengo hauek: Errentaren eskaera egiteko jarraitu behar den prozeduraren zailtasuna eta egin diren eskaera guztietatik proportzio oso txiki bati esleitu izana besteak beste. Eskaeraren zailtasunaren kasuan, begi bistakoa da ez dutela kontuan hartu zein den eskatzaileen egoera, aurrerago aztertuko denez oso handia delako maila ekonomiko eta hezkuntza zein maila kulturalaren arteko erlazioa. Beraz horrek eragin du BGE jasotzeko aukera duten batzuk herritar errenta ez eskatzea prozedura oso zaila iruditu zaielako.

Alde batera utzita BGE jaso dituen kritikak, aipatu beharra dago hurrengo atalean BGE kokapena konstituzioan eta ondorioz duen babes konstituzionala azalduko direla, baita gainerako oinarrizko errentenak ere.

4. Espainiako konstituzioaren bermeak eta oinarrizko errenta ezberdinen kokapena

Espainiako konstituzioa 1978ko abenduaren 29an argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean eta egun berean sartu zen indarrean. Konstituzioak aurreikusten duen moduan, espainiar estatua zuzenbidezko Estatu sozial eta demokratikoa da eta bere antolamendu juridikoaren balore nagusizat askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa ditu. Estatuak daukan itxura politikoa monarkia parlamentarioa da eta subiranotasun nazionala Estatuko herritarrei dagokienez, herritarrek Estatuko botereen jatorria dute.³⁶

Gainera Espainia Estatu konstituzional bat da; Konstituzioa ordenamendu juridikoaren arau gorena delako (beraz maila txikiagoa duten arauak bere edukia errespetatu beharko dute), konstituzioak, balore moral juridikoak diren, duintasuna, autonomia, askatasuna,

³⁴ GONZALEZ ORTEGA, S., BARCELON COBEDO, S., (2020), *El ingreso mínimo...* Op.Cit, 52-53 orr.

³⁵ Espainiako Aldizkari Ofiziala 2020ko ekainean argitaratutako 20/2020 errege dekretua ezartzen duen Bizitzeko Gutxienezko Errentaren 10. artikulua.

³⁶ Espainiako Konstituzioaren 1. artikulua Espainiako Aldizkari Ofizialean 1978ko abenduaren 29an argitaratutakoa

berdintasuna, segurtasuna eta solidaritatearen eskubideak onartzen dituelako (morala zuzenbidean sartzen den neurrian botere konstituziogileak zehazten du) eta konstituzioak onartutako eskubideen irismena, botere judizialak mugatzen, haztatzen eta aztertzen dituelako argudiaketaren bitartez.³⁷

BGE eta gainerako oinarrizko errentek konstituzioan daukaten kokapena eta jasotzen duten babesaz aztertu aurretik ezinbestekoa da konstituzioan bereizten diren eskubide motak eta bakoitzak duen babesaz azaltzea.

4.1 Espainiako Konstituzioaren bermeak oro har

Espainiako konstituzioak aurreikusten dituen eskubideak hiru multzotan bereizten dira, alde batetik oinarrizko eskubideak daude, bestalde herritarren eskubideak eta betebeharrak daude eta azkenik politika sozial eta ekonomikoaren printzipio gidariak daude.³⁸ Jarraian talde bakoitzean bereizten diren eskubide, betebeharrak eta printzipioak aipatuko dira eta talde bakoitzak duen bermea azalduz.

Oinarrizko eskubideak izaera bikoitza bat dute, alde batetik dimentsio subjektiboa eta bestetik objektiboa bereizten dira. Dimentsio subjektiboa, gizabanako baten estatus juridikoaren berme gisa ulertzen ditu oinarrizko eskubideak, bestetik dimentsio subjektiboaren osagarria den dimentsio objektiboa, zuzenbidezko estatu sozial eta demokratikoaren gizarte nazionalaren orden politiko eta bake sozialaren funtsezko elementu gisa ulertzen ditu oinarrizko eskubideak.³⁹

Oinarrizko eskubideak lehenengo tituluko 14. artikuluan eta lehenengo sekzioko bigarren kapituluan arautzen dira, eta hurrengo hauek dira: 14. artikuluko berdintasun eskubidea, 15. artikuluko bizitzarako eta integritate moralerako zein fisikorako eskubidea, 16. artikuluko askatasun ideologiarako eta erlijiosorako eskubidea, 17. artikuluko askatasunerako eta segurtasunerako eskubideak, 18. artikuluko ohore, intimitate eta norberaren irudirako eskubideak, 19. artikuluko zirkulazio eta egoitza askatasunak, 20. artikuluko adierazpen, informazio, sorkuntza eta katedra askatasunak, 21. artikuluko elkartzeko eta manifestazio eskubideak, 22. artikuluko elkarte eskubidea, 23. artikuluko politikan eta kargu publikoen funtzioetan sartzeko eskubidea, 24. artikuluko babes judizial eraginkorra eta berme prozesalenzako eskubideak, 25. artikuluko legezketasun printzipioa, zigorrak eta isun

³⁷ COLINO, A., CARRILO MARQUEZ, D., NAVAU MARTINEZ-VAL, P., RAMOS LLANOS, A.J., REY PEREZ, J.L., VANDERBORGHT, Y. (2015). Sostenibilidad del Estado de Bienestar en España. *Dykinson*, 109-116 Orr.

³⁸ MONEREO, M. ILLUECA, H. (2017). *España un proyecto de liberación*. El viejo topo. 122-137 orr.

³⁹ IGLESIAS BAREZ, M. (2010). *Estructura orgánica y derechos fundamentales en la constitución española de 1978*. Ediciones Universidad de Salamanca. 310-311 orr.

administratiborako eskubideak, 26. artikuluko administrazio zibileko eremuan ohorezko auzitegien debekua, 27. artikuluko hezkuntzarako eskubidea, 28. artikuluko askatasun sindikala eta 29. artikuluko eskaera eskubidea. Eskubide guzti hauek babes maila altuena dutenak dira. Konstituzioko 53.2 artikulua arautzen duen moduan edozein biztanle babestu ditzakeen eskubideak dira dagokion ohiko auzitegiaren aurrean, lehenetasun eta sumariotasun printzipioetan oinarritutako prozedura baten bitartez edota erregutze errekurtsio baten bitartez auzitegi konstituzionalean.⁴⁰

Herritarren eskubideak eta betebeharrak, garrantzia handia daukaten eskubideak dira baina konstituzioak, oinarritzko eskubideen babesarekin alderatuz, babes arrunta ematen die.⁴¹ Eskubide hauek lehenengo tituluko bigarren sekzioko bigarren kapituluan arautzen dira, eta hurrengo hauek bereizten dira: 30. artikuluko espainia defendatzeko eskubidea, 31. artikuluko herritar guztiek gastu publikoa mantentzeko eskubidea dute bakoitzaren gaitasun ekonomikoaren eta legezkontasun eta progresibo printzipioaren arabera, 32. artikuluko ezkontzeko eskubidea, 33. artikuluko jabetza pribaturako eta herentziarako eskubidea, 34. artikuluko interes orokorarentzako fundazioetarako eskubidea, 35. artikuluko lan egiteko beharra eta eskubidea, 36. artikuluko eskola profesionala legearen arabera erregulatuko dira, 37. artikuluko negoziazio kolektiborako eta 38. artikuluko gatazka kolektiboetan neurriak hartzeko eskubidea eta azkenik merkatu-ekonomian enpresa askatasuna. Eskubide hauek, konstituzioko 53.1 artikulua dioen eran erdi-mailako bermea dute eta botere publikoak lotzen dituzte, lege arruntaren erreserbaren printzipioaren mende daudelarik, nolahi ere, eskubideen funtsezko edukia errespetatzeko beharra daukate.⁴²

Politika sozial eta ekonomikoaren printzipioak, errespetatu eta bete behar diren politika sozial eta ekonomikoaren printzipio gidariak dira eta horregatik eskubide sozialen izena hartzen dute. Eskubide hauen zereginen artean praktika judizialaren eta botere publikoen jarduketaren berri ematea bereizten dira.⁴³ Eskubide sozialak konstituzioko lehenengo tituluko hirugarren kapituluan aurreikusten dira eta hurrengo hauek dira: 39. artikuluko familia eta haurtzaroa babesteko dute botere publikoak, 40. artikuluko botere publikoak sustatuko duten aurrerapen ekonomikoa, soziala eta errenta birbanatzea, 41. artikuluko Gizarte segurantzarako eskubidea, 42. artikuluko atzerrian dauden langileen babesa, 43. artikuluko osasunaren babesaren eskubidea, 44. artikuluko kultura eta ikerkuntzaren

⁴⁰ Espainiako Konstituzioaren 53.2 artikulua Espainiako Aldizkari Ofizialean 1978ko abenduaren 29an argitaratutakoa

⁴¹ MONEREO, M. ILLUECA, H. (2017). *España un proyecto de...* Op. Cit 122-130 orr.

⁴² Espainiako Konstituzioaren 53.1 artikulua Espainiako Aldizkari Ofizialean 1978ko abenduaren 29an argitaratutakoa

⁴³ MONEREO, M. ILLUECA, H. (2017). *España un proyecto de...* Op. Cit 122-130 orr.

sustapena, 45. artikuluko ingurumenaz eta bizi-kalitate on batenaz gozatzeko eskubidea, 46. artikuluko ondarea kontserbatzea, 47. artikuluko etxebizitzarako eskubidea, 48. artikuluko gazteriaren partaidetza bizitza sozialean sustatzea, 49. artikuluko minusbaliatuei behar duten zaintza ematea, 50. artikuluko adinekoek pentsio egoki bat jasotzeko eskubidea, 51. artikuluko kontsumitzaileen defentsa eta 52. artikuluko interes ekonomikoak babesteko erakundeak sortzeko eskubidea. Konstituzioko 53.3 artikulua aurreikusten du eskubide sozialek daukaten babesa oso maila baxukoa dela, izan ere, soilik jurisdikzio arruntean alegatuak izan daitezke legeak aurreikusitakoaren arabera.⁴⁴

Hauxe da konstituzioak egiten duen eskubideen gaineko banaketa, eskubideek daukaten babesean eta eraginkoratsunean oinarriturik dagoena.

Jarraian, eskubide bakoitza zein multzotan sartzen den eta ze babesa duen jakinda, BGE eta gainontzeko oinarrizko errentak non kokatzen diren ze babesa duten eta ondorioz zein izan daitekeen eraginkorra aztertuko da.

4.2 Oinarrizko errenten kokapena eta bermea

Behin azterturik zein eskubide mota bereizten diren Estatuko konstituzioan oinarrizko errenta bakoitza zein artikulutan kokatu daitekeen eta ondorioz zein berme izan dezakeen aztertuko da. Hasteko indarrean dagoen BGE kasua aztertuko da eta ondoren gainontzeko oinarrizko errentak.

4.2.1 Bizitza Gutxiengoko Errenta

Estatuko gobernuak koronabirusaren krisialdiari aurre egiteko ezarri duen BGE, gizartearen multzo bati zuzendutako oinarrizko errenta partziala, EK hirugarren kapituluko 41. artikuluan kokatzen da, izaera estatala duen gizarte segurantzaren prestazio berria bezala, behar egoeran daudenei zuzendutakoa, kasu honetan txiroei zein gizarte bazterkerian jausteko arriskuan daudenei zuzendutako prestazioa. BGE eskubide sozialen multzoan sartzen denez izango duen babes maila txikia da, soilik jurisdikzio arruntaren aurrean legearen arabera alegatua izan daitekeelako.⁴⁵ BGE eskubide sozialen multzoan kokaturik dagoenez posible da konstituzioan duen iraupena oso luzea ez izatea, denboran zehar gobernatzen duen gobernuaren urteko aurrekontuaren eta gustuen arabera, BGE mantentzea edo desagertzea erabaki dezaketelako.⁴⁶

⁴⁴ IGLESIAS BAREZ, M. (2010). *Estructura orgánica y derechos fundamentales...* Op. Cit 306 orr.

⁴⁵ GONZALEZ ORTEGA, S., BARCELON COBEDO, S., (2020), *El ingreso mínimo...* Op.Cit, 22 orr.

⁴⁶ *Ibidem*

4.2.2 Partaidetza Errenta

Partaidetza errenta, Estatuko gainontzeko laguntza sozialen osagarri bat izango leike, eta gizartean parte hartzen dutenek, hala nola, ume bat zaintzen borondatezko zein ordaindutako lana egiten, errentaren onuradunak izango dira.⁴⁷ Errenta hau praktikan jarriz gero EK 41. artikuluan aipatutako laguntza osagarriaren papera beteko luke eta ondorioz jurisdikzio arruntean legearen arabera alegatua izango da bakarrik, konstituzioko eskubideen artean babes txikiena duten eskubide multzoan dagoelako.⁴⁸

4.2.3 Oinarrizko Errenta bigarren txekearen bitartez

Bigarren txeke honen helburua, langabezia tasa murrizte da, beraz langabezian dauden pertsonak lana aurkitu zezaten, lan jardunaldia murriztu duten langileak konpentsazio gisa estatuarengandik txeke bat jasotzen dute.⁴⁹ Errenta hau noizbait estatuan martxan jarriko balitz, konstituzioko bi artikulua desberdinetan aurreikusita egon leike, eskubide sozial zein herritarren multzoan. Eskubide sozial giza EK 41. artikuluan egongo legoke gizarte segurantzaren prestazio baten moduan BGE bezala. Errenta hau bereziki bat dator artikulua horrekin artikuluan langabezia kasuetan prestazio bat bermatzeko betebeharra nabarmentzen delako eta errenta honen funtzio nagusia langabezia murriztea delako. Eskubide sozial gisa onartua izateak daukan desabantaila argiena babes maila da, oso txikiena delako. Izan ere, bakarrik jurisdikzio arruntaren aurrean legearen arabera alegatua izan daiteke eta gainera aurretik aipatu den eran ezabatzea oso erreza da.⁵⁰ Konstituzioan sartzeko beste aukera herritarren eskubideen 35.1 artikuluan dago, lana arautzen duena. Han lana egiteko beharra baita egiteko eskubidea arautzen denez errenta primeran egokitzen da. Errentak lanik egin gabe dagoen jendea lanean ipintzen ditu, bermatuz lan egiteko beharra. Artikulu honetan kokaturik egotea daukan abantaila garrantzitsuena aurreko artikuluekin alderatuz babesa da, hemen lege zein xedapen-aurapetik babestu ahalko delako auzitegi konstituzionalean konstituzio kontrako helegitearen bitartez eta botere publiko guztiak lotesten dituelako.⁵¹

4.2.4 Errentaren gaineko zerga negatiboa

Zerga negatiboa oinarrizko errenten mota bat da, helburu gisa pobrezia murriztea duena pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren bitartez. Zera da gaia, errentaren aitortzean

⁴⁷ ATKINSON, A.B, (2017-12-06). Reducing poverty and inequality... Op. Cit. 308 orr.

⁴⁸ GAVARA DE CARA, J.C. (2010). *La dimensión objetiva de los derechos sociales*. Bosch editor. 47-57 orr.

⁴⁹ GORZ, A. (1994). Salir de la sociedad salarial. *Debats. revista de cultura, poder y sociedad*. 62-66 orr.

⁵⁰ IGLESIAS BAREZ, M. (2010). *Estructura orgánica y derechos fundamentales*... Op. Cit 311 orr.

⁵¹ Espainiako Konstituzioaren 161.1 a) artikulua Espainiako Aldizkari Ofizialean 1978ko abenduaren 29an argitaratutakoa

ezarritako minimo batera ailegatzeko ez direnak pobrezian daudela ulertuko da beraz estatuarengandik transferentzia bat jasoko dute. Egunen batean errentaren gaineko zerga negatiboa espainiako estatuan martxan jarriko balitz EK 31.1 artikuluan kokatuko litzateke, herritarren eskubideen tartean. Artikulu horretan bidezko zergadun sistema bat arautzen da gastu publikoei aurre egiteko erabiliko dena bakoitzak duen gaitasun ekonomikoaren arabera gehikortasun eta berdintasun printzipioetan oinarriturik. Sistema hori pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga da eta bertan errentaren gaineko zerga negatiboa guztiz integratu daiteke, izan ere, pertsona fisikoen errentak jasoko duen berri bakarra Estatuko transferentziak lirateke. Gainera, zerga negatiboa bat dator gastu publikoei bakoitzak duen gaitasun ekonomikoaren arabera aurre egitea dioen esaldiarekin zein gehikortasun printzipioarekin, bermatuz konstituzioak 31.1 artikuluan araututakoa.⁵²

Behin jakinda herritarren eskubideen parte izango zela, errentaren gaineko zerga negatiboa maila erdiko babesa jasoko luke, BGE daukana baina handiagoa. Beraz, bidezko zergadun sistema, errentaren gaineko zerga negatiboa, botere publiko guztiak lotesten ditu eta soilik legez erregulatu ahalko da. Betiere funtsezko edukia errespetatzen delarik. Gainera, eskubide hau lege zein xedapen-araupetik babestu ahalko da auzitegi konstituzionalean konstituzio kontrako helegitearen bitartez.⁵³ Baliteke ere errentaren gaineko zerga negatiboa EK-ko eskubide sozialen artean kokatzea, hain zuzen 41. artikuluan, gizarte segurantzaren prestazio bat bezala. Honen desabantaila handiena babes maila txikia izango zen.⁵⁴

4.2.5 Oinarrizko Errenta Unibertsala

OEU egun fama handiena duen errenta da, herrialde bateko herritar guztiei ematen zaiena, kontuan hartu gabe zein den onuradunen egoera, hau da lanean edo langabezian dauden edota txiroa edo aberatsa den.⁵⁵ Egunen baten estatuan OEU abian jarri gero EK sartzeko hainbat bide desberdin bereizten dira. Bide horietatik errazena eskubide sozial gisa onartua izatea dirudi, hain zuzen EK 40.1 artikuluan aurreikusitako errentaren birbanaketa lortzeko berme moduan. Honen desabantaila, gainerako eskubide sozialekin gertatzen den moduan babesik ez duten eskubideak direla, beraz gerta daitekeela haien bizitza konstituzioan oso luzea ez

⁵² MARTIN ALVAREZ, J.A. (2010). *La escalera de jacob analisis de la viabilidad del impuesto negativo sobre la renta*. Tirant lo Blanch. 183-185 orr.

⁵³ RIDAURA MARTÍNEZ M.J. *La protección y garantía de las libertades y derechos fundamentales*. Tirant lo Blanch. 8-16.

⁵⁴ MARTIN ALVAREZ, J.A. (2010). *La escalera de jacob analisis de la viabilidad del impuesto negativo sobre la renta*. Tirant lo Blanch. 189 orr.

⁵⁵ STANDING, G., (2018), *La renta básica...* Op. cit 13-17 orr.

izatea. Sasoi horretan gobernatzen duen gobernuaren urteko aurrekontuaren eta gustuaren arabera, OEU mantentzea edo desagertzea gertatu daitekeelako.⁵⁶

EK sartzeko beste aukera bat, OEU babesleen ametsa handiena, oinarrizko eskubide gisa onartuak izatea da, hain zuzen, bizibide eskubide giza, EK 15. artikuluko bizitza eskubidearen euskarri moduan. Hau da, herritar guztiok daukaten bizitzarako eta integritate moralerako zein fisikorako eskubidea betetzen lagunduko duen tresna gisa. Babes maila altuena lortuz, edozein biztanle babestu dezakeelarik dagokion auzitegian lehentasun eta sumariotasun printzipioetan oinarritutako prozedura baten bitartez edota erregutze errekurtsio baten bitartez auzitegi konstituzionalean.⁵⁷

BGE eta gainerako oinarrizko errentak kontuan hartuz gero, babes maila altuena izan dezaketenak oinarrizko errenta bigarren txekaren bitartez, errentaren gaineko zerga negatiboa eta oinarrizko errenta unibertsala dira. Oinarrizko errenta hauek gainerakoekin alderatuz babesaren aldetik eraginkorrenak direlako. Beraz, ez da hain erreza izango gobernu berrientzat errenta hauek bertan behera uztea, denbora luzeago batean abian mantenduko direlako. Bereziki errentaren gaineko zerga negatiboaren eta bigarren txekaren bitarteko oinarrizko errenten kasuan. OEU are segurtasun handiagoa izango luke, baina horretarako ezinbestekoa litzateke oinarrizko eskubide gisa onartzea. Hala ere, ez dirudi hala izango denik etorkizun hurbil batean.

5. Herritarren partaidetza bizitza ekonomikoan, kulturean, sozialean, eta politikoan: “Espainiako konstituzioko 9.2 artikulua aztertzen”

Aurreko atalean aipatu diren oinarrizko errenta gehienak errentaren gaineko zerga negatiboa izan ezik, Konstituzioko 41. artikuluan kokatzen dira beraz babes txikiena daukate. Hala ere bermatu egiten direnez eta Espainia estatu soziala denez konstituzioko 9.2 berdintasun materiala bermatu beharra dago ere.

Atal honetan, EK 9.2 artikuluan arautzen den herritarren askatasuna eta berdintasuna bermatzeko baita gizarte guztiaren partaidetza bizitza politikoa, ekonomikoa, kulturala eta soziala errazteko, estatuan zein oinarrizko errenta den eraginkorrena aztertuko da. Hain zuzen, BGE, baldintzazko oinarrizko errenta edo partaidetza errenta, oinarrizko errenta

⁵⁶ GARCIA PEREZ, C. (2021-01-30). Monográfico. la renta básica, críticas y réplicas. *Revista internacional de pensamiento político*. 15. 79-90 orr.

⁵⁷ *Ibidem*

bigarren txekearen bitartez, errentaren gaineko zerga negatiboa eta OEU dira aztertuko diren oinarrizko errenta guztiak. Beraz, jakiteko zein errenta den eraginkorrena herritarren partaidetza lortzeko, bakoitzak dituen eraginak aztertuko dira politikoki, ekonomikoki, kulturalki eta azkenik sozialki.

5.1 Herritarren bizitza ekonomikoa

Espainiar Estatuko herritarrek bizitza ekonomikoan daukaten partaidetza aztertu aurretik, ekonomia zertan datzan jakitea interesgarria izan leike. Ekonomia, gabeziari aurre egiteko gizabanakoak, enpresak, gobernuak eta gizarteak hartzen dituzten erabakiak aztertzen dituen zientzia soziala da.⁵⁸

Herritarren partaidetzara bueltatuz, aipatzekoa da 2007ko krisialdiaren eta koronabirusaren pandemiaren krisialdiaren bitartean estatu espainolean aberatsak gero eta aberatsagoak direla. Aldiz, biztanleen gehiengoak gero eta txiroagoa bilakatzen ari da.⁵⁹ Honek argi uzten du, partaidetza ekonomikoan herritarren arteko desberdintasunak txikiagotu beharrean gora egiten dutela, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen nazioarteko itunaren aurka eginez. Nazioarteko itun honek aurreikusten duelako itunaren kide guztiek, Espainiar estatua barne, garapen ekonomikoa lortzeko neurriak hartu behar dituztela, eta herritar guztiek eskubide ekonomiko guztietaz gozatzeko aukera bermatua behar dutela.⁶⁰

Desberdintasun hori eragiten duen arrazoietako bat izan daiteke, gobernuak hartzen dituzten neurri politiko ekonomikoak. Izan ere, neurri hauek ez dira inoiz neutralak, beti gizartearen talde bat kaltetzen dute eta beste batzuei mesede egiten die. Esaterako, pentsioak blokeatu edota jaitsi, zergak igo, lan-kaleraketak erraztu, sektore publikoak pribatuak bihurtu.⁶¹ Espainiar estatua, aipatu berri den nazioarteko ituna errespetatzen ez duela argi dago, ez dituelako neurri neutralak hartzen.

Aurreko neurritz gain, Estatuko gobernuak, koronabirusaren krisiaren efektuei aurre egiteko azken boladan hartu duen egiturazko neurrietako bat BGE ezartzea izan da.

Hala ere, estatua ez da soilik prestatu behar koronabirusaren krisiak eragindako efektu ekonomikoei aurre egiteko, desberdintasun ekonomikoa gora egin dezakeelako etorkizun hurbilean, enpresetan egongo den automatizazioa eta robotitazioa eraginda. Honek ekarriko duelako hainbat jende lanik gabe geratzea, bereziki kualifikazio gutxiko langileak, eta

⁵⁸ PARKIN, M., POWELL, M., MATTHEWS, K., (2013)., *Introducción a la Economía. Pearson Educación.* 23orr.

⁵⁹ RAVENTÓS, D. (2021). “*LA RENTA BÁSICA...*”, *Op. Cit.* 101-110 orr.

⁶⁰ Espainiak berretsitako 1966ko abenduaren Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 1. artikulua

⁶¹ *Ibidem*

enpresek haien pertsonala erabat murriztea. Oraindik langile eta familia gehiago lanik galtzen badute, ez dute soldatarik izango, beraz kontsumoak behera egingo du ez dutelako diru nahikorik izango merkatuan gastatzeko.⁶² Honek ekarriko du, gizarte-bazterkeriaren tasak berriz handitzea, hainbat familia ez dutelako izango beharrezko dirurik, bizitzeko oinarriko beharrak asetzeko. Ondorioz herritar askoren partaidetza bizitza ekonomikoan minimoa izango da, ez dutelako horretarako kapitalik izango.

5.1.1. Bizitzeko Gutxienezko Errenta

Herritarren bizitza ekonomikoan sortu diren eta etorkizunean sortu daitezkeen desberdintasunak bertan behera gera daitezten, Estatuko gobernuak ezarri berri duen errenta, BGE, soilik gizarte bazterkerian dauden pertsonen zuzenduta dago.⁶³ Aurreko urtean, gizarte bazterkerian dauden eta bakarrik bizi diren hartzaileak 5538 euro jaso dituzte errenta gisa, 400 euro inguru hilero.⁶⁴ BGE zenbatekoa eta hartzaileak nortzuk diren jakinda, agerikoa da ez duela lortuko gizarte bazterkerian dauden pertsonak gizarteratzea, besteak beste hurrengo bi arrazoiengatik; Zenbatekoa ez delako nahikoa eta gizarte bazterkerian jausteko arriskuan dauden pertsona multzo txiki bati soilik laguntza ematen zaielako, errentaren hartzaileak izan ahal diren pertsona asko errenta jasotzeko burutu behar duten eskaeraren formalitateak ulertzen ez dituztelako.

Eraginkortasunaren emaitza, BGE ez du lagunduko bizitza ekonomikoan gutxi parte hartzen duten herritarren partaidetza handituz.

5.1.2. Partaidetza errenta

Errenta hau estatuan ezarriz gero, herritarren bizitza ekonomikoa ez du asko aldatuko. Egia esanda, bakarrik gizartearen %50 izango da onuragarria partaidetza errenta, aldiz herritarren heren batentzat efektu negatiboak eragingo ditu. Badirudi partaidetza errenta egun ez dela errentarik egokiena herritarren bizitza ekonomikoa hobetzeko, ezta txirotasun zein gizarte bazterkeria tasak erabat murrizteko. Errenta hau eraginkorra izan dadin beste prestazio batzuen osagarria izan beharko da.⁶⁵

Eraginkortasunaren emaitza, partaidetza errenta norbaiten partaidetza ekonomikoa hobetzekotan jada ona denena izango da.

⁶² LEÓN LLORENTE, C. (2019-12-18) Robotización, ¿solo cambiará el empleo?. *Empresa y Humanismo*, 23 N.1. 10-13 orr.

⁶³ Espainiako Aldizkari Ofiziala 2020ko ekainean argitaratutako 20/2020 errege dekretua ezartzen duen Bizitzeko Gutxienezko Errentaren 3. xedapen orokorra.

⁶⁴ Espainiako Aldizkari Ofiziala 2020ko ekainean argitaratutako 20/2020 errege dekretua ezartzen duen Bizitzeko Gutxienezko Errentaren 10. artikulua.

⁶⁵ ATKINSON, A.B. (1996). The case for a participation income. *The political quarterly publishing*. 1-4 orr.

5.1.3. Oinarrizko Errenta Bigarren txekearen bitartez

Oinarrizko errentaren beste mota bat da, eta mota hau bereziki zuzentzen da langabezia murriztera. Errenta honek eragiten du lanik gabe dagoen jendea lana aurkitzea, askotan langabezia dagoen jendea gizarte bazterkerian jausteko arriskuan dagoena edo dagoeneko txirotasunean dagoena izaten da. Beraz lanean ipintzen diren pertsona asko txiroa edo gizarte bazterkerian daudenak izaten dira. Errenta honek argi uzten du gizartearen bizitza ekonomikoa hobetzen duela, txirotasunean eta gizarte bazterkerian zegoen jendea errenta honi esker lan bat aurkitu dutelako eta ondorioz haien diru sarrerak asko hazi direlako, txirotasun eta gizarte bazterkeria tasak erabat murriztuz.⁶⁶ Lanik ez duten herritarrentzat bigarren txekea oso eraginkorra dirudi, aldiz txarto ordaindutako lanak dituztenentzat, hau da, gizarte bazterkerian jausteko arriskuan daudenentzat ez du abantailik ekarriko.

Eraginkortasunaren emaitza, bigarren txekeak txiroen partaidetza bizitza ekonomikoan handituko du desberdintasuna orekatuz.

5.1.4. Errentaren gaineko zerga negatiboa

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari, txiroentzat zuzenduta dagoen transferentzia bat gehitu behar zaio, pobrezia tasa murriztera bideratzen dena. Zerga negatiboaren muintetako bat txiroei bitartekaririk gabe dirua ematea da, haien oinarrizko beharrak asetzeko asmoz. Errenta honen onuradunak lanik ez duten txiroak dira eta lana aurkitzen duten bezain pronto errenta kobratzeari utziko dute. Errentaren gaineko zerga negatiboa ez da tresnarik egokiena bizitza ekonomikoan herritar guztien partaidetza berdina lortzeko. Izan ere, txirotasunaren tasa soilik erabat murriztuko da, errenta honek gero eta onuradun gehiago izanez gero, norberak jasotzen duen kopurua murriztu egingo delako. Errentaren zenbatekoa murriztea ekarriko du txirotasunetik ateratzeko ezintasuna. Aipatzekoa da ere errenta hau soilik lanik ez duten txiroei zuzenduta dagoenez, soldata kaskarrak eta zabor-lanak dituzten pertsonak eta gizarte bazterkerian jausteko arriskuan daudenak ezin dutenez konpentsazio hau jaso ezinezkoa izango da haien egoera ekonomikoa hobetzea.⁶⁷

Eraginkortasunaren emaitza, onuradun kopuruaren arabera hobetu daite bizitza ekonomikoan ia parte hartzen ez dutenen egoera.

5.1.5. Oinarrizko errenta unibertsala

Azkenik, OEU dago biztanle guztiei ordaintzen zaien errenta dela, ez soilik txiroei, txiroei zuzendutako errentetan, txiroak hartzaileak bihurtzeko beharrezkoak diren betekizunak ez

⁶⁶ GORZ. A. (1994). Salir de la sociedad salarial...Op. Cit.. 74-83 orr.

⁶⁷ MARTIN ALVAREZ, J.A. (2010). *La escalera de jacob análisis de la viabilidad del impuesto negativo sobre la renta*. Tirant lo Blanch. 183-194 orr.

dituzte betetzen lotsarengatik eta ezjakintasunarengatik. OEU ematen denean gizartea ez da banatzen bazterkeria egoeran daudenen artean eta gainerako gizartearen artean.⁶⁸ Gainera OEU hartzaileei txirotasunean ez sartzeko eta bertatik ateratzeko segurtasun ekonomikoa ematen die.⁶⁹

Bestalde, enpresen automatizazioaren eta robotizazioaren efektuei aurre egiteko OEU eragingo du produktibitateak gora egitea, herritar guztiei onurak ekarriz, eta lanaldia murriztuz, efektu hauei esker herritar guztiek askatasun gehiago lortuko dute.⁷⁰

Badirudi lagungarria izan daitekeela OEU egun dagoen txirotasunarekin eta gizarte bazterkeriarekin amaitzerako orduan, OEU ematen duen segurtasun ekonomikoarekin, hartzaileek oinarrizko beharrak asetzea lortuz eta enpresen automatizazioaren efektuak murriztuz.

Eraginkortasunaren emaitza, errenta eraginkorrena da herritarren bizitza ekonomikoa hobetzeko errenta biztanle guztiek jasotzen dutelako. Ondorioz partaidetza orekatzen da.

Oinarrizko errenta guztiak alderaturik, badirudi herritar guztien partaidetza bizitza ekonomikoan lortzeko eraginkorrenak bigarren txeketa eta batez ere OEU direla. Bigarren txeketaren oinarrizko errentak, eragingo du lanik ez zuten eta lanean hazten diren pertsonen bizitza ekonomikoan parte hartzea. OEU berriz eragingo du herritar guztien partaidetza handitzea txiroena, langile prekarioena baita jada partaidetza handia daukaten pertsonena. Aldiz, BGE, partaidetza errenta eta errentaren gaineko zerga negatiboa ez dute erraztuko herritarren partaidetza bizitza ekonomikoan.

5.2 Herritarren bizitza kulturala

Jada herritarren partaidetza ekonomikoan hobetu dezaketen errentak aztertuta, herritarren partaidetza kulturalan nolakoa den eta zein errentaren bitartez hobetu daitekeen aztertuko da. Horretarako, aurretik adierazi behar da espainiar konstituzioa, pertsona guztiek kulturalan sartzeko eskubidea, eta botere publikoak hura sustatzeko zein babesteko beharra dutela aurreikusten dela.⁷¹ Konstituzioak hori aurreikusteko arrazoia eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen nazioarteko ituna delako. Aurretik aipatu den eran konstituzioak hala nola nazioarteko itunak jorratutako oinarrizko eskubideak eta askatasunak interpretatzeko eskubidea duelako. Beraz, konstituzioak dio botere publikoek kultura sustatu behar dutela eta

⁶⁸ VAN PARIJS, P., VANDERBORGHT, Y. (2017). *Ingreso básico una propuesta radical para una sociedad libre y una economía sensata*. Grano de sal. 33-34 orr.

⁶⁹ STANDING, G. (2018) *La renta básica un derecho...* Op. Cit. 65 orr.


⁷⁰ RAVENTÓS, D. (2021). “*la renta básica...*”, *Op. Cit.* 115-119 orr.

⁷¹ Espainiako Konstituzioaren 44.1 artikulua Espainiako Aldizkari Ofizialean 1978ko abenduaren 29an argitaratutakoa

herritar guztiek kulturaren parte hartu behar dutela, horrela arautzen delako nazioarteko itunean.⁷²

Dena dela, gaur egun, ez da bermatzen konstituzioak aurreikusten duena kulturaren inguruan, adituen esanetan kultura gehien kontsumitzen dutenek bi ezaugarri komun dituztelako: Alde batetik hezkuntza maila txikia ez izatea eta bestetik eskaintza kultural handiko hiri batean bizitzea. Hain zuzen ere, hezkuntza maila txikia daukatenak eta eskaintza kulturalik gabeko herrietan bizi diren pertsonak ez dute ia kulturarik kontsumitzen.⁷³ Hurrengo grafikoan oso argi ikusten da.

Zinemara doan jendea hezkuntza maila ezberdinen arabera



Iturria: Observatorio social de la caixa. participación cultural y bienestar

Badirudi erlazio handia dagoela hezkuntza eta kulturaren artean, hau da, pertsona batek daukan hezkuntza mailaren arabera, kultura kontsumitzen du. Familiak jasotzen duen errentaren arabera ere, gerta daiteke kulturaren parte hartzea edo ez. Hots, gero eta errenta hobetuz dutenek partaidetza kultural handiago bat izango dute.⁷⁴ Txosten honek argi uzten du herritar guztiak ez dutela kulturaren parte hartzen, hain zuzen, errenta eta hezkuntza maila txikia daukatenak. Horregatik herritar talde bakoitzak kulturaren parte hartzea hain

⁷² Espainiak berretsitako 1966ko abenduaren Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 15. artikulua.

⁷³ FUNDACION LA CAIXA. “El perfil del consumidor de cultura español es similar al europeo”, *El Observatorio Social.*, <https://observatoriosociallacaixa.org/-/entrevista-victor-fernandez-blanco>. (Kontsultatuta 2021.05.10).

⁷⁴ OBSERVATORIO SOCIAL DE LA CAIXA. *Participación cultural y bienestar* (N.o 4). https://observatoriosociallacaixa.org/documents/22890/112710/Observatorio_Social_laCaixa_Dossier-4_esp.pdf/4cf1940b-f2d9-cb39-7054-37c6bf22c367. (Kontsultatuta 2021.03.16).

desberdina da. Hain zuzen, hezkuntza eta errenta maila gutxi dituzten herritarrak oso partaidetza txikia daukaten bitartean, hezkuntza eta errenta maila altua dituztenak partaidetza handia daukate.

Gainera, koronabirusaren krisiak ez du asko lagundu, herritarren partaidetza bizitza kulturalan gehiago murriztu duelako.

Azpiatal honetan, partaidetza kulturala aztertzeaz gain, hezkuntzan herritarrek daukaten partaidetza aztertuko da, oso handia delako kultura eta hezkuntzaren arteko lotura, aurretik aipatu berri dugun eran.

Herritar guztiek hezkuntzarako eskubidea daukate, hezkuntzaren helburua, elkarbizitzaren, eskubideen eta oinarrizko askatasunen printzipio demokratikoak errespetatuz, gizabanakoen pertsonalitatea garatzea izanik.⁷⁵

Helburu hau ez da beti lortzen hainbat ikasle ikasketak oso goiz bertan behera uzten dituztelako.

Alegia, ikasleen % 17,3 ikasketak goiz bertan behera uzten dituzte, Estatuko tasa Europan dagoena baina askoz handiagoa izanez. Ikasketak abandonatzen dituzten ikasleen artean gehienak mutilak dira, hain zuzen % 21,4, nesken kasuan aldiz, soilik % 13 abandonatzen dituzte ikasketak.⁷⁶

Ikasle horien eskola-porrotaren arrazoi garrantzietako bat, beraien familien maila ekonomiko makala da.⁷⁷ Eskola-porrotaren arrazoietakoa bat, familien maila ekonomiko gatazka dela frogatu daiteke esaterako Bartzelonako hirian, bertako auzo baztertuetan, errenta txikienekoetan, eskola-porrota, auzo aberatsena baina 8 aldiz handiagoa delako.⁷⁸ Badaude zenbait ikasle ere ikasketak nerabeak direnean uzten dituztela, haien familiak ekonomikoki laguntzeko beharra dutelako. Beraz ikasketekin jarraitu beharrean lanean hasten dira.⁷⁹

Gainera familien txirotasuna, belaunaldiz belaunaldi familia-kideen artean igarotzen da, oso zaila izanik ziklo hortatik ateratzea.⁸⁰ Bestalde, ikasle hauek dira kurtso gehiago errepikatzen dituztenak.⁸¹

⁷⁵ Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua Espainiako Aldizkari Ofizialean 1978ko abenduaren 29an argitaratutakoa

⁷⁶ MINISTERIO DE EDUCACION Y FORMACION PROFESIONAL. *La tasa de abandono escolar en España alcanza su nivel más bajo desde que se tienen datos*. Gobierno de España. <https://www.educacionyfp.gob.es/prensa/actualidad/2020/01/20200128-epaabandono.html>. (Kontsultatuta 2021.03.21).

⁷⁷ UNIR. (2020-2-7). Tipos de fracaso escolar, ¿cuáles son las causas y cómo prevenirlo. *Unir Revista*. 5-12 orr.

⁷⁸ ARCARONS, J., RAVENTÓS, D., & TORRENS, L. (2017). Sobre algunas críticas a la renta básica incondicional: ¿miedo a la libertad? *Sin Permiso*. 18-22 orr.

⁷⁹ STANDING, G. (2018) *La renta básica un derecho...* Op. Cit. 134 orr.

⁸⁰ *Ibidem*

⁸¹ UNIR. “Tipos de fracaso escolar...” Op. Cit. 5-12 orr.

Penagarriena da ikasle horiek, ikasketak goiz utzi dituztenak, beti oztopo gehiago izango dituztela lana bilatzerako edota laguntzak eskatzeko orduan haien prestakuntza bestea baino baxuago delako. Gainera zailtasun asko izango dituzte txirotasunaren tranpatik irteteko. Jarraian oinarrizko errenten artean zein izan daiteken efikazagoena, kulturaren parte hartzen ez duten herritarren partaidetza kulturala handitzeko eta hezkuntza abandonua murrizteko.

5.2.1. Bizitza Gutxienezko Errenta

Hasteko pandemiaren krisialdiari aurre egiteko ezarri den BGE aztertuko da. Errenta hau baldintzatua eta hartzaile batzuei zuzendutakoa da. Eta BGE eskatzeko tramite batzuk burutu behar dira. Tramite horiek eragiten dute jendeak BGE ez eskatzea, hura eskatzeko beharrezkoak diren dokumentuak lortzea oso zaila delako bi arrazoirengatik; Alde batetik, dokumentu horiek lortzeko hainbat prozedura egin behar direlako eskatzaileak eta bestetik eskatzaileei oso zaila egiten zaielako tramite horiek burutzea.⁸²

Gogoratu beharra dago BGE hartzaileak gizarte bazterkerian dauden pertsonak direla, beraz haien hezkuntza zein kultura maila nahiko baxua dela, eta horrela jarraituko da izaten eskatzaile posibleentzat BGE eskuratzeko jarraitu beharreko prozedura eta tramiteak errazten ez dituzten bitartean. BGE ez du bere onuradunen bizitza kulturalaren partaidetza handituko, hartzaileek bere janaria ordaintzeko arazoak izanik ezinezkoa da dirua kulturarako erabiltzea. *Eraginkortasunaren emaitza*, BGE ez lagunduko herritarren partaidetza kulturala errazten.

5.2.2. Partaidetza errenta

Estatuak gizartean parte hartzen duten herritarrei emango dien errenta da, eta hura jasotzeko onuradunek ez dute inolako prozedurarik jarraitu behar automatikoki jasoko dute gizartean parte hartuz gero. Parte hartze gisa ulertzen dira ordaindutako lana, boluntarioak egiten duten ordaindu gabeko lana, lan formakuntza eta ikasketak burutzea besteak beste. Ikasten dauden herritarrak gizartean parte hartzen daudela ulertzeak onurak ekarriko ditu herritarren bizitza kulturalan. Aurretik aipatu den eran hezkuntza eta kulturaren arteko erlazio oso estua delako. Beraz herritarrek ez dute hezkuntza hain erraz bertan behera utziko, ikasketei esker partaidetza errenta jasoko dutelako.⁸³ Hala ere kontuan hartu behar da ere hezkuntza eta maila ekonomikoaren artean dagoen erlazioa. Errenta baxua duten pertsonak zailtasun gehiago izango dituztelako ikasketekin jarraitzerako orduan.

Eraginkortasunaren emaitza, errenta honek lagundu dezake herritarren bizitza kulturala hazten maila ekonomiko egokia dutenei. Aldiz errenta baxuen partaidetza ez du aldatuko.

⁸² Fundación Rais. *Sr. Escrivá, para el sinhogarismo el Ingreso Mínimo Vital no funciona..* <https://hogarsi.org/escriva-sinhogarismo-ingreso-minimo-vital>. (Kontsultatua 2021.05.1).

⁸³ ATKINSON. A.B. (2015). *Inequality: What can be done ?*. Harvard university press. 230-240 orr.

5.2.3. Oinarrizko errenta bigarren txekearen bitartez

Errenta honetan langabezian dauden pertsonen lan bat aurkitzen zaie, lan hori burutzen ari diren herritarrei beraien jardunaldiak murrizten zaielako, beraz konpentsazio gisa errenta bat jasoko dute. Ondorioz enpresen produktibitatea jaitsi ez dezan langabezian dauden pertsonak kontratatuko dituzte.⁸⁴ Jardunaldi murrizketak izango duten efektuen artean bereiz daiteke, gizabanakoak aisialdian helburu ekonomikorik gabe burutuko dituzten ekintzak. Herritarren bizitza aberastuko duten jarduera horien artean aurkitzen dira kulturalak hala nola, kontzertuetara, antzerkietara, azoka gastronomikoetara joatea zein hezigarriak. Argi dago beraz, bigarren txekeak kultura zein hezkuntza sustatzen dituela, ikasketen abandonua ugari murriztuz eta kulturaren kontsumoa ugari xamar handituz.⁸⁵

Eraginkortasunaren emaitza, bigarren txekeren errenta eraginkorra da herritar guztien bizitza kulturalaren partaidetza lortzeko, herritarren maila ekonomikoa handitzearekin batera denbora libre gehiago dutelako.

5.2.4. Errentaren gaineko zerga negatiboa

Txiroek jasotzen duten transferentzia da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan minimo batera ailegatzeko ez direlako. Errenta hau soilik zuzenduta dago pobrezian dagoen jendeari eta bere aplikazioa gizarte segurantzaren laguntzak ezabatuko ditu. Aldiz beste laguntza batzuk, esaterako hezkuntzan sartzeko laguntzak autore batzuk ezabatu nahi dituzte, haien ustetan behar hori errentaren gaineko zerga negatiboaren bitartez estali ahal delako. Beste autoreen ustetan hezkuntzaren laguntza mantendu beharrekoa da, ezinbestekoa delako hezkuntza gazteen pertsonalitatea osatzeko.⁸⁶ *Eraginkortasunaren emaitza*, baliogarria izango da errenta hau herritarren partaidetza kulturala hazteko, errentaren hartzaile gutxi badaude eta hezkuntza laguntzak mantentzen badira. Es da berbera gertatuko hartzaile asko direnean eta hezkuntza laguntzik ez dagoenean.

5.2.5. Oinarrizko errenta unibertsala

Jasotzeko biztanleek ez dute baldintzarik bete behar, hau da, jendeak ez du ezer frogatu behar, soilik biztanleak izateagatik errenta jasoko dutelako.⁸⁷ Hau eragingo du, gizarte bazterkeria murriztea, jendea ez duelako tramiterik burutu behar OEU eskuratzeko.

⁸⁴ GORZ. A. (1994). Salir de la sociedad salarial... Op cit. 74-76 orr.

⁸⁵ GORZ. A. (1991). *Metamorfosis del trabajo búsqueda del sentido crítica de la razón económica*. Ediciones sistema. 294-297 orr.

⁸⁶ FUENMAYOR FERNANDEZ. A., GRANELL PEREZ. R. (2017-01). Implantación de un impuesto negativo sobre la renta microsimulación de su coste neto y efectos sobre la pobreza y la desigualdad. *Instituto de estudios fiscales*. 14-20 orr.

⁸⁷ STANDING, G. (2018) *La renta básica un derecho...* Op. Cit. 15-16 orr.

Aurrekoaz gain, OEU eskola-porrota murriztea eragingo du, ikasketak abandonatzen dituzten ikasleengan ikasteko interesa sortuko duelako eta ondorioz kulturaren kontsumoa handitzea eragingo du. Gainera gazteek ez dute izango ikasketak abandonatzeko beharra beraien familiei ekonomikoki laguntzeko, OEU formatzeko aukera emango die.⁸⁸ Herritarren hezkuntza eta kultura maila hobetuko da familien egoera ekonomikoa hobetuko delako. Izan ere, OEU eragingo du txirotasunaren tranparekin amaitzea. Txirotasunaren tranpa, txirokek zergak ordaintzean jaso dituzten diru sarrerak galtzea da, ezinezkoa bihurtuz haientzat egoera horretatik ateratzea.⁸⁹

Eraginkortasunaren emaitza, agerikoa da errenta honen bitartez herritarren bizitza kultura hobetuko dela herritar guztien partaidetza lortuz.

Herritarren partaidetza kulturaren handitzeko eta gazteen ikasketen abandonua murrizteko oinarrizko errenta guztiak aztertu ondoren eraginkorrenak OEU eta bigarren txekoa dira. Bi kasuetan herritar guztien partaidetza kulturala handitzea eragingo dute, berdintasun bat lortuz. Gainerako errentek aldiz egungo egoera mantenduko dute ez dute onurarik ekarriko.

5.3 Herritarren bizitza soziala

Bizitza sozialarekin hasteko aipatzekoa da eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen nazioarteko ituna arautzen duela estatu kide guztiak garapen soziala burutu behar dutela. Beraz, estatu espainolari dagokio bizitza soziala garatzea.⁹⁰

Bizitza soziala, herritarren partaidetza kulturalarekin harreman handia du bizitza sozial gisa ulertzen delako, ezezagunekin, senideekin, lagunekin edo bizilagunekin egiten diren gizarte harremanak. Kontzeptu honek barneratzen ditu ere beste etxeetako pertsonak laguntzeko harremanak, baita elkarteek edo erakundeak (kulturala, politikoa, aisialdikoa, erlijiosoak) burutzen dituzten ordaindu gabeko borondatezko laguntza jarduerak.⁹¹

5.3.1. Bizitza Gutxienezko Errenta

Estatu espainolean fama handia daukan erakunde erlijioso batek dio BGE hutsune asko dituela. BGE laguntza ez delako ailegatzen gizarte bazterkerian edo txirotasunean dagoen jende guztiari. Hain zuzen, aurtengo maiatzean soilik erakundeak laguntzen dituen pertsonen %16-a jaso du errenta. Gainera, borondatezko erakunde erlijiosoak BGE inguruan kexatu da,

⁸⁸ ARCARONS J., RAVENTOS, D., & TORRENS, L. "Sobre algunas críticas a la renta básica..." Op. Cit. 18-22 orr.

⁸⁹ VAN PARIJS, P., VANDERBORGHT, Y. (2017). *Ingreso básico una propuesta...* Op. Cit 36-44 orr.

⁹⁰ Espainak berretsitako 1966ko abenduaren Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 3. artikulua.

⁹¹ EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEA. *Vida Social*. https://www.eustat.eus/documentos/opt_0/tema_173/elem_3237/definicion.html. (Kontsultatuta 2021.05.22).

burutu behar den tramitazioa konplexua delako, dohaineko laguntza juridikorik ez dagoelako, zenbatekoa txikia delako besteak beste.⁹² Errenta soilik multzo txiki bati ailegaten denez, ez dira gizarte harreman berririk sortzen.

Eraginkortasunaren emaitza, BGE ez ditu gizarte harremanak handituko, hartzaileak ez dituelako gizartean integratuko. Beraz ez du bizitza sozialaren partaidetza handituko.

5.3.2. Partaidetza errenta,

Gizarte harremanak sustatzen dituela agerikoa da, errenta jaso ahal izateko bete behar den baldintza gizartean parte hartzea delako. Esaterako lan ordainduan ezezagunen arteko gizarte harremanak burutzen dira, berriz ikasketetan lagunen arteko harremanak burutzen dira besteak beste.⁹³

Eraginkortasunaren emaitza, partaidetza errentak ez du ekarriko bizitza sozialean parte hartzerik ez dutenen partaidetza handitzea. Jada gizartean integraturik daudene partaidetza handituk du.

5.3.3. Oinarrizko errenta bigarren txekearen bitartez

Bigarren txekearen bitartezko oinarrizko errenta honetan gizarte harremanak sustatzen dira. Alde batetik lanpostuetan langileen eta nagusien arteko gizarte harremanak ematen dira, bestetik aldiz langileen aisialdian ematen dira. Aurretik aipatu dugun eran bigarren txekearen bitartez gizabanakoak aukera dute lan egiten ez duten orduetan, aisialdian, ekintza kulturalak, kirol ekintzak eta hezkuntza ekintzak burutzera. Beraz, ekintza guzti horietan herritarren arteko gizarte harremanak burutzen ari dira etengabe, ezagunen, ezezagunen, familien eta lagunen artean.⁹⁴

Eraginkortasunaren emaitza, bigarren txekea erginkorra da harreman gutxi zituzten herritarrak gizartean integratzeko eta dagoeneko integratuta daudenen harremanak handitzeko. Hots bizitza sozialaren partaidetza nabarmen handitzen da.

5.3.4. Errentaren gainerako zerga negatiboa

Lan osoan zehar aipatu den eran pobrezia murriztera zuzenduta dago, beraz horretarako PFEZ-an minimora ailegaten ez direnak transferentzia bat jasoko dute. Minimo horretara ailegaten ez direnak txiroak dira, beraz transferentzia hau izan aurretik irabazi asmorik gabeko erakundeetara laguntza eskatzera joaten ziren. Transferentzia honek berriz eragin dezake irabazi asmorik gabeko erakundeen afluentzia murriztea eta oinarrizko beharrak

⁹² ARRIVI, A., ABRIL, A. Cáritas insta a corregir las trabas de acceso al Ingreso Mínimo Vital que excluyen a numerosos perceptores. Caritas. <https://www.caritas.es/main-files/uploads/2021/05/27mayo21.pdf>. (Kontsultatua 2021.06.01).

⁹³ ATKINSON, A.B. (2015). *Inequality: What can be Op. cit.* 55-57 orr.

⁹⁴ GORZ, A. (1994). *Salir de la sociedad Op. Cit.* 55-62.

asetzeko nahikoa daukatenez gizarten integratzea. Errenta honetan desabantaila beti berbera da, hartzaile koprua handitzeak transfrentzien zenbatekoa murrizten duenez ezinezkoa izango da txiroentzat haien oinarrizko beharrak asetzea eta gizartean integratzea.⁹⁵

Eraginkortasunaren emaitza, ez da eraginkorra hartzaile kopuruaren arabera emaitzak oso ezberdinak izan daitezkelako.

5.3.5. Oinarrizko errenta unibertsala

Bestalde, nahasmendu mentaleko pertsonen eta pertsona ezgaituen erakundeek diote, OEU lagunduko dietela; lan-merkatura itzultzen, pentsioak ez jasotzeko beldurrik izan gabe, haien osasunaren kontrakoak diren lanak uzten eta konfiantza, lasaitasuna eta autonomia irabazten.⁹⁶

OEU baliagarria da ere, bereziki umeen osasun mentala hobetzen, baino horretarako OEU gain beste politika sozial batzuk funtsezkoak izango dira.⁹⁷

Beraz OEU ezartzekotan jendearen osasun mentala eta ongizate psikologikoa hobetzea izatea eragingo du. OEU autonomia, kontrola, segurtasuna eta askatasuna emango diolako gizarteari. Gainera oinarrizko beharrak asetzen dituen OEU batek ekarriko du gizarte harremanak eta partaidetza bizitza sozialean handitzea, gizartearen konfiantza gora eginez.⁹⁸

OEU bizitza sozialen partaidetza haztea eragiten du, nahasmendu mentala eta ezgaituak diren pertsonen gizarte harremanak zein gainerako biztanleenak handitzen direlako.

Eraginkortasunaren emaitza, Dударik gabe eraginkorra da bizitza sozialaren partaidetza hazteko. Herritar guztiek gizarte harremana gehiago dituzte, ezgaituak barne.

Biztanle guztien bizitza sozialaren partaidetza handitzeko zein errenta den eraginkorrena alderatzen badugu, emaitza nahiko argia da. OEU eta bigarren txekearen oinarrizko errenta direlako herritar gehien gizartean integratzen dituztenak haien arteko gizarte harremanak sustatuz. Bizitza ekonomiko eta kulturean gertatzen den moduan laguntza gutzien ematen duten errentak BGE, zerga negatiboa eta partaidetza errentak dira.

5.4 Herritarren bizitza politikoa

Eskubide zibil eta politikoen nazioarteko itunak aurreikusten du estatu kide guztiak bermatu behar dutela, espainiar estatua barne, herritar guztiek eskubide politiko guztiez gozatzeko aukera izatea.⁹⁹

⁹⁵ MARTINEZ ALVAREZ, J.A. (2002-08-02). El impuesto negativo sobre la renta una solución novedosa y eficiente a la pobreza. *Estudios de economía aplicada*. 450-470 orr.

⁹⁶ RAVENTÓS, D. (2021). “*la renta básica...*”, *Op. Cit.* 149-151 orr.

⁹⁷ STANDING, G. (2018) *La renta básica un derecho...*Op. Cit. 97 orr.


⁹⁸ RAVENTÓS, D. (2021). “*la renta básica...*”, *Op. Cit.* 146.148 orr.

⁹⁹ Espainak berretsitako 1966ko abenduaren Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 3. artikulua.

Nahiz eta espainiar estatuan herritar guztiei eskubide politiko berdinak bermatu, praktikan Estatuko biztanleria bizitza politikoan daukan partaidetza, daukaten gaitasun ekonomikoaren eta hezkuntzaren arabera izango da. Hau da, gero eta txiroagoa eta hezkuntza maila baxuagoa izan, gero eta partaidetza gutxiago.

Alegia, txiroak hauteskundeetan parte hartzen dutenean, birbanatzea gora egitea eragingo du. Aldiz txiroak bozkatzeko ez dutenean eta aberats asko bozkatzeko badute, birbanatze politikak murrizten egiten dira.¹⁰⁰ Hurrengo grafikoan errenta txikiko, hezkuntza maila baxuko, langabezia tasa handiko eta bizi-itxaropen txikia daukaten auzoetan dagoen parte hartze politikoa ikusten da.

Errenta eta hezkuntza maila baxuko auzoetan



Iturria: Fundación Foessa. La segregación electoral interurbana en España

Honek ekarriko du, auzo horietako biztanleen errealitatea ez egotea ordezkaturik inoiz errealitate politikoan.¹⁰¹ Hots, pertsona baten partaidetza politikoak pertsona hori daukan errenta eta hezkuntza mailaren arabera izango da, kulturen bezala. Alegia, gero eta errenta eta hezkuntza maila altuagoa dutenek gehiago bozkatzeko dute, eta kulturen berdin, hezkuntza maila eta errenta handia dutenek kulturen gehiago parte hartuko dute.

Errenta txikiko eta hezkuntza maila baxuko auzoetan partaidetza politikoak normala izan dadin, ezinbestekoa izango da bertako biztanleek gizartean integratzea.

¹⁰⁰ TRUJILLO CARMONA, M., GOMEZ FORTES, B, *La segregación electoral interurbana en España. Relación entre participación y renta* (N.o 8). Fundación Foessa. <https://www.foessa.es/main-files/uploads/sites/16/2019/05/3.4.pdf>. (Kontsultatuta 2021.03.14).

¹⁰¹ *Ibidem*

5.4.1. Bizitza Gutxienezko Errenta

Errenta honen bitartez, auzo horietako txiroak ez dira gizartean integratuko, eta beraz ez dute politikan parte hartuko egoera horretan dauden biztanle gehienak hezkuntza maila baxua daukatelako. Beraz, horrek dakar *BGE* eskatzeko burutu behar diren tramiteak betetzen ez jakitea eta ondorioz ezta saiatu ez egitea.¹⁰²

Eraginkortasunaren emaitza, BGE ez du eragingo errenta baxuko auzoen parte hartze politikoa haztea beraz haien errealitatea politikan ordezkaturik ez egotea.

5.4.2. Partaidetza errenta

Partaidetza kulturean aipatu den eran errenta honek eragingo du behar ekonomikorik ez duen jendea ikasketak burutzea ikasketak gizartean parte hartzeko era bat delako.¹⁰³ Ondorioz hezkuntza eta errenta baxuko auzoetan dagoen partaidetza politikoa ez du aldatuko. *Eraginkortasunaren emaitza*, ez du ekarriko auzo baztertuen gagoen politika parte hartzea handitzea.

5.4.3. Oinarrizko errenta bigarren txekearen bitartez

Errenta honekin langabezian dagoen jendea lana eskuratzean haine gizarte harremanak handituko direnez gizartean integratuko dira kulturen gehiago parte hartuko dutelako, eta aurretik lana zeukaten herritarrek lan ordu gutxiago dutenez ekintza gehiago egiteko aukera izango dute haien artean kulturalak.¹⁰⁴ Ondorioz, kultura, hezkuntza eta maila ekonomikoaren hazkundearekin batera hauteskundeetako partaidetza igo egingo da. Horrela gizarteko multzo guztien errealitatea politikan ordezkaturiko da.

Eraginkortasunaren emaitza, gizarte guztiaren errealitatea politikan ordezkaturik egotea eragingo du.

5.4.4. Errentaren gaineko zerga negatiboa

Zerga negatiboari esker errenta homogeneoagoa izango da, maila ekonomiko, kultural baita hezkuntza baxuko zein handiko herritarrena, onuradun kopurua txikia denean. Hots transferentzien zenbatekoa handia izatekotan. Aldiz tranferentziak txikiak badira nahikoa daukate hartzailak alokairua edo janaria ordaintzearekin.¹⁰⁵ Horrela izanez gero ez dute aukerarik izango ikasketen bitartez haien pertsonalitatea zein ideia politiko bat garatzeko aukera eta haien partaidetza politikoa ez da aldatuko.

Eraginkortasunaren emaitza, egun dagoen parte hartze politikoa mantenduko da.

¹⁰² Fundacion Rais. (2020-10-17). *Sr. Escrivá, para el sinhogarismo...* Op. Cit.

¹⁰³ ATKINSON. A.B. (2015). *Inequality: What can be ...* Op. Cit. 230-240 orr.

¹⁰⁴ GORZ. A. (1991). *Metamorfosis del trabajo ...* Op. Cit. 294-297 orr.

¹⁰⁵ FUENMAYOR FERNANDEZ. A., GRANELL PEREZ. R. (2017-01). *Implantación de un impuesto negativo sobre la renta microsimulación...* Op. Cit. 25-29 orr.

5.4.5. Oinarrizko errenta unibertsala

Txiroak diren biztanle horiek gizartean integratuko dira eta politikan parte hartuko dute OEU ezarri gero, OEU ez delako eskatu behar, beraz ez du garrantzirik izango zein den hartzaileen hezkuntza maila. Gainera OEU eragingo du, biztanleek bizitzeko oinarrizko beharrak asetzeko arazorik ez izatea, eta autonomia eskuratzea. Hori dela eta auzo horietako biztanleak politikan parte hartuko dute.¹⁰⁶ OEU biztanle horiek politikan parte hartzea eragingo du, lagunduko dielako gizartean integratzen eta kulturen parte hartzen, eta ondorioz hezkuntza maila hobeto bat izaten. Beraz bozkatzeko dutenez haien errealitatea politikan ordezkaturia egongo da eta birbanatze politika hazi egingo da.

Eraginkortasunaren emaitza, OEU eragingo du partaidetza politikoa igotzea eta birbanatze politikak egotea.

Herritarren partaidetza politikoa sustatzen duten errentak bi dira, oinarrizko errenta bigarren txekaren bitartez eta OEU. Bi errentek errentaren birbanaketaren hazkundera dakarte herritar guztien errealitate politikoa ordezkaturia dagoelako. maila ezberdineko herritarren arteko berdintasuna lortuz. Hori hala izan dadin funtsezkoa da errenta hauek eragiten duten hezkuntza eta kulturen partaidetza igotzeak, herritarrengan ideia politiko bat sortzen laguntzen diena. Bizitza politikoaren parte hartzea haztea ez dute lortuko BGE, partaidetza errenta eta zergaren gaineko errenta negatiboa politikarekin loturik dagoen hezkuntza eta kulturen parte hartzean eraginik ez dutelako.

Errenta guztiak aztertuz, konstituzioko 9.2 artikuluko askatasuna, berdintasuna eta bizitza ekonomikoan, kulturean, sozialean eta politikoan herritar guztien partaidetza lortzeko errenta eraginkorrenak OEU eta bigarren txekia dira, eremu guztietan lagungarriak izango direlako.

6. Espainiar Estatuko lan-merkatua: Langileen eta lanbideen egoera. “Espainiako konstituzioko 35. artikulua aztertzen”

Koronabirusaren pandemiak, bizitza ekonomikoan, kulturean, sozialean eta politikoan herritar batzuen parte hartzea murrizteaz gain, hots desberdintasunak areagotzea, konstituzioko 35. artikuluan arautzen den lan merkatuan langabeziaren eta prekaritatearen hazkundera ekarri du. Hain zuezen, estatuan langabezia 3,6 milioi pertsona inguru daude,

¹⁰⁶ RAVENTÓS, D. (2021). “*La renta básica...*”, *Op. Cit.* 115-119 orr.

aldiz 19 miloi pertsona gutxi gorabehera lan egiten dute.¹⁰⁷ Lan egiten duten pertsonen artean % 40 lan prekarioak dituzte.¹⁰⁸ Estatuan dagoen lan prekaritatea neurri handi batean sorrarazten duena, Estatuko lan-merkatuan dagoen lan kontratuen behin behinekotasun maila da, Estatuko tasa oso handia delako. Hain zuzen Europar Batasuneko herrialdeen bikoitza.¹⁰⁹ Prekaritatea, desabantaila edo desberdintasun egoera bat eragiten duten baldintzen multzoa da. Hala nola, soldata desberdintasunak, enpresan igotzeko zailtasunak, ezegonkortasun eta segurtasun eza, lanerako osasunaren arriskuak.¹¹⁰

Estatuko lan merkatuan dagoen langabezia, prekaritatea eta behin behinekotasun maila eragiten du familia anitz hilero oinarrizko beharrak asetzeko zailtasun handia izatea. Zoritxarrez badaude haibat pertsona ezin dutenak saihestu txirotasunean eta gizarte bazterkerian jaustea.

Gaur egun lan-merkatuaren panorama ez dator bat espainiar konstituzioak bere garaian aurreikuzi zuenarekin. Konstituzioaren esanetan, espainiar guztiak lan egiteko beharra eta eskubidea dute, lana aukeratzeko askatasunarekin, baita bertan igotzeko eskubidea izanik. Gainera lanbide horretan lortzen duen soldata bere beharrak baita familiarenak asetzekoak izan behar dira, sexuarengatik diskriminazioa ezinezkoa izanik.¹¹¹

Lan merkatuaren langabeziarekin eta prekariatatearekin amaitzeko eta konstituzioak aurreikusitakoa bermatzeko bidea zein oinarrizko errenta bermatu dezakeen aztertuko da.

6.1 Bizitza gutxienezko errenta

BGE behin ezaguturik, ez dirudi errenta aproposena denik konstituzioak lanaren inguruan aurreikusitakoa bermatzeko ezta lan prekaritatearekin zein langabeziarekin amaitzeko. Izan ere, errentaren hartzaileek, egoera ekonomiko oso kaskar batean daudenak¹¹² ez dute independentziarik, autonomiarik ezta segurtasunik jasoko, oinarrizko beharrak asetzeko zailtasunak izango dituztelako. Onuradun gehienak langabezian egotea eta errentarengatik

¹⁰⁷ ESTADISTIKAKO INSTITUTU NAZIONALA (INE). . *Encuesta de población activa, primer trimestre de 2021*.

https://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736176918&menu=ultiDatos&idp=1254735976595. (Kontsultatua 2021.05.14).

¹⁰⁸ UGT. Hamar pertsonatik lauk lan prekarioa dute. <https://www.ugt.es/cuatro-de-cada-diez-personas-tienen-trabajos-precarios>. (Kontsultatua 2021.05.17).

¹⁰⁹ Ibidem

¹¹⁰ UGT. Lan prekaritatearen inguruan ez dakizuna. http://portal.ugt.org/juventud/lo_que_no_sabias_juventud_UGT.pdf. (Kontsultatua 2021.05.18).

¹¹¹ Espainiako Konstituzioaren 35.1 artikulua Espainiako Aldizkari Ofizialean 1978ko abenduaren 29an argitaratutakoa

¹¹² GONZALEZ ORTEGA, S., BARCELON COBEDO, S., (2020), *El ingreso mínimo...* Op.Cit, 17-27 orr.

jasotzen duten zenbatekoa hain txikia izatea, edozein lan prekario hartzea eragingo die. Beraz, BGE prekaritatea ezabatu beharrea hura mantentzen lagunduko du.

Eraginkortasunaren emaitza, BGE ez du lortuko langabezia murriztea eta prekaritatea ezabatzea, lan-baldintza hobekak lortuz. Hala nola soldata altuagoa, lan-ordu gutxiago.

6.2 Partaidetza errenta

Partaidetza errenta jasotzeko baldintza bat oradaindutako lan bat egitea izatea ez du onurarik izango langabezia murrizterako orduan, gizartetik bazterturik dagoen jendea lanik aurkitzen ez duelako. Langabeziari aurre egiteko tresnarik egokiena enplegu publikoa da, enplegu publikoak langabezian dagoen jendea xurgatu dezakeelako. Beraz konstituzioak 35. artikuluan aurreikusten duena bermatzeko partaidetza errentari enplegu publikoa gehitu beharko zaio.¹¹³ Hala izanez gero, enplegu publikoaren hazkundeak lanpostu gehiago sortuko dituen langabezi-tasa murriztuko du. Gainera bertan kobratzen diren soldatak familia guztiaren beharrak asetzeko aukera emango dute.

Eraginkortasunaren emaitza, Partaidetza errentari enplegu publikoaren hazkundea gehitzen ez zaion bitartean ezingo da murriztu prekaritatea.

6.3 Oinarrizko errenta bigarren txekaren bitartez

Errenta honek langabezia murriztea eta errentaren birbanaketa hobeko bat lortzea helburu duenez, langabezian dagoen jendea lanean jartzen zuden langileei lanaldia murriztuz.¹¹⁴ Errenta honen arazoa dator etorkizun hurbileko enpleguaren automatizazioarekin eta robotizazioarekin, horrela enpleguen zenbatekoa murriztea eragingo duelako, ezinezkoa izanez langabezian dagoen jendea lanean jartzea.¹¹⁵ *Eraginkortasunaren emaitza*, momentuz bigarren txekea eraginkorra da Estatuko langileen eta lanbideen egoera hobeteko baina gauza asko aldatu daiteke automatizazioaren inplantazioarekin.

6.4 Errentaren gaineko zerga negatiboa

Errenta honek, enpleguaren sustagarria kendu dezake, errentaren gaineko zerga negatiboaren karga oso handia denean, hots transferentziaren zenbatekoa handia denean hartzaile gutxi daudelako. Aldiz zerga negatiboaren karga txikia izanez gero errenta hau ezingo da aurrera

¹¹³ ATKINSON. A.B. (2015). *Inequality: What can be*. Op. cit. 280-298 orr.

¹¹⁴ GORZ. A. (1991). *Metamorfosis del trabajo b...* Op. Cit.. 246-267 orr.

¹¹⁵ *Ibidem*

eraman bere kostua oso altua izango delako, errentarn zenbatekoa jaitsi arren hainbeste hartzaile egoteak errenta finantzaezina bihurtuko da.¹¹⁶

Eraginkortasunaren emaitza, errenta honek lanari pizgarria kentzen dio, ondorioz langabezia tasa gehiago haziko da.

6.5 Oinarrizko errenta unibertsala

OEU, espainiar konstituzioak aurreikusitako, negoziatzeko boterearen garrantzia handituko du, eta langileek lan baldintza hobetoak lortzeko erabiliko dute. Dagoeneko premia-premia beharrak OEU bitartez estali dezaketelako. Beraz, langileak negoziatzeko botere horrekin beraien lan baldintzak hobetu ditzakete. Besteak beste ordutegi hobeto bat lortuz, kontratu mugagabe bat lortuz, soldata hobeto bat lortuz. Negoziatzeko botereak ere emango die langileei gustukoa ez duten lan bat uzteko eta negozio propioak sortzeko aukera.¹¹⁷ Aparte neurri handi batean ezkutuko ekonomiarekin amaituko da, hezkuntza maila txikia daukatenak lan-merkatuan sartzera animatuko dituelako.¹¹⁸

Lan prekarioekin amaitzeko espainiar konstituzioa aurreikusitakoa bermatzeko eraginkorra dirudi OEU, biztanleek aukera izango dutelako nahi duten lana aukeratzeko, haien beharrak eta familiarenak asetzeko soldata nahikoa irabaziz. Sexuarengatiko diskriminazioa ezabatuz emakumeek zein gizonen dsoldata berdina irabaziz

OEU Espainiako konstituzioan aurreikusitako lana egiteko beharra bermatzen du. Lanean jarraituko duten biztanleen kopurua ez delako murriztuko, hau da, gehiengoak soldata baten truke lanean egongo dira, egongo dira ere lanean egongo direnak soldata bat jaso gabe. Esaterako, umeak zaintzen, gaixorik dagoen familiako kide bat zaintzen, erosketak egiten, irabazi asmorik gabeko erakundeetan lan egiten. Badaude diotenak, lan bat egitea soldata moduan ezer jaso gabe ezin dela lana kontsideratu, soilik lan gisa kontsideratu behar dela soldata baten truke egindakoa. Tesi hura zentzugabekoa da, lan egiteko era guztiak balorea daukatelako, kontuan hartu gabe zenbateko batekin ordainduta dauden edo ez.¹¹⁹

Aurrekoaz gain, aipatzekoa da ere negoziatzeko botere horri esker emakumeak txanda bikoitzak egiteari utzi dezaketela, baita txarto ordaindutako lanbideak ere, horrela autonomia irabaziz.¹²⁰ Gainera, OEU emakumeei segurtasun ekonomiko bat emango die lagunduko

¹¹⁶ FUENMAYOR FERNANDEZ, A., GRANELL PEREZ, R. (2017-01). Implantación de un impuesto negativo sobre la renta microsimulación... Op. Cit. 13-16 orr.

¹¹⁷ RAVENTÓS, D. (2021). "La renta básica...", Op. Cit. 55-61 orr.

¹¹⁸ STANDING, G. (2018) *La renta básica un derecho...* Op. Cit. 133 orr.

¹¹⁹ *Ibidem* 133-136 orr.

¹²⁰ VAN PARIJS, P., VANDERBORGHT, Y. (2017). *Ingreso básico una propuesta...* Op. Cit. 240-244 orr.

diena nahi duten enplegua aukeratzeko, baita genero desberdintasuna murrizten.¹²¹ Hau da, emakume eta gizonek lan berdina egiten duten kasuetan soldata bera jasotzea biek ordu berdinak lan eginez.¹²² Hots, egun dagoen eta espainiar konstituzioan debekatuta dagoen sexu diskriminazioarekin amaituz. Abantaila hauez gain, OEU bereziki lagungarria izango da genero indarkeria jasaten duten emakumeentzat, tratatu txarren emaileak normalean ez dituelako uzten emakumeei etxetik at lan egitea, ezinezkoa izanik haien dirurik gabe etxe horretatik ihes egitea. Beraz egoera horretan dauden emakume batzuk OEU bitartez, jasotako diruarekin egoera horretatik ihes egin dezakete.¹²³

Eraginkortasunaren emaitza, dudarik gabe errentarik eraginkorrena da langabeziari, prekarietateari eta lan eremuko sexu diskriminazioari aurre egiteko.

Errenta guztiak aztertuta agerikoa da eraginkorrenak EK 35 artikulua lanaren inguruan araututakoa bermatzeko OEU dela. Prekarietatea eta langabezia dezente murriztu ahal dituelako langileentzako egoera hobeto bat lortuz. Gainerako errentak bigarren txekoa izan ezik ez dute egoera konpontzen lagunduko, edozein kasutan ere arazoa areagotu dezakete. Bigarren txekoa lagungarria izango zen egoera hobetzeko automatizazioarengatik ez balitz.

7. Oinarrizko errenta unibertsalaren kontra dauden kritikak

Agerikoa da OEU Estatuan ezarri daitekeen errentarik onena dela herritarren harteko berdintasuna lortzeko gaitasuna duela, herritar guztien partaidetza eremu guztietan bermatuz lan eremua barne. Hala ere, badaude ere OEU kritikatzeko dutenak, hau da, errentaren kontra daudenak. Haien usteetan OEU ez dituelako onurarik ekartzen, gaitzak baizik. OEU alde ez dauden zenbait pertsonen, hurrengo kritikak egiten dizkiote errentari.

Badira diotenak, OEU biztanleak alferrak bihurtzen dituela, edozeinek diru sarrerak jasotzen dituelako lanik egin behar barik. Hau da, biztanle horiek, gainontzeko biztanleek produzitukoaz baliatzen direla. Beraz, biztanle batzuk lanean dauden bitartean, lan egiten ez dutenek aisialdiaz gozaten egongo dira.¹²⁴

Aldiz OEU babesleek argudio hau ezeztatzen dute, diotelako OEU ezartzen denean lanaren zenbatekoa eta kalitatea gora egiten duela, errenta aurretik egon daitekeena gailenduz.¹²⁵ Gainera ezin zaie alferrak deitu gainerako biztanleei gerta daitekeelako lan ordaindua egiten

¹²¹ STANDING, G. (2018) *La renta básica un derecho...* Op. Cit. 138 orr.

¹²² RAVENTÓS, D. (2021). “*La renta básica...*”, Op. Cit. 90 orr.

¹²³ Ibidem

¹²⁴ RALLO, J.R. (2015). *Contra la renta básica, por que la redistribución de la renta restringe nuestras libertades y nos empobrece a todos*. Deusto. 444 orr.

¹²⁵ STANDING, G. (2018) *La renta básica un derecho...* Op. Cit. 132-140 orr.

ez dabilenak, bolondresko lana egiten egotea, esaterako zerbitzu sozialetan, espetxeko jendea birgizarteratzea, edota etxeko lanak egiten egotea, gaixorik dauden umeak zaintzea, etxeko erosketak egitea besteak beste.¹²⁶

OEU egiten zaion beste kritika bat zera da, errenta ez dela baldintzarik gabekoa izango dirutza handia daukaten biztanleentzat OEU eragin negatiboa izango duelako.¹²⁷ Kritika hau sortzen da, zenbait adituren ustetan OEU finantziatzeko moduetako bat dirutza gehien daukatenei zerga bat ezartzea delako, aurrentzean aztertuko den eran. Hala ere, kritika honek argi uzten du dirutza asko duten biztanle gehienak oso diruzaleak direla. Sektore horretako biztanleak OEU finantziatzeko zerga ordainduz gero, mantenduko duten diru kantitatea ia ia berdina izango da hainbeste dirutza dutenentzat, haientzat zergan ordaindu beharrekoa xehetasun hutsala izango zelako. Honek plazaratzen du, talde horretako biztanleek gainontzeekiko duten enpatia, jakinda herritarren arteko desberdintasuna gero eta gehiago handitzen doala.

OEU kontra daudenek ere kritikatzten dute, langabezian dagoen jendea bertan denbora gehiago ematen duela OEU atsedean osagarri bat finantziatzen dielako.¹²⁸ Bestalde OEU alde daudena diote, langabezian denbora gehiago eramatea epe luzera onuragarria izan daitekeela, horrela jende hori haien beharrei eta gaitasunei neurtzen den lan bat aurkitzen dutelako.¹²⁹

OEU kontra daudenen kritiken artean bereizten da ere dioena, OEU eragingo duela lan egiten duen herritarren soldatak baxuagoak izatea, enpresariak dakitelako jada OEU bitartez errenta bat jasotzen dutela. Hortaz enpresaburuek langileei ordainduko dizkieten soldatak, egungo soldatak baino baxuagoak izango dira.¹³⁰ Berriz, OEU aldekoak diote hori ez dela horrela izango OEU herritarrei enpresarien aurrean negoziatzeko boterea emango dielako, eta botere horri esker langileek haien baldintzak hobetu ditzaketelako. Baldintza horien artean soldatak igotzea agertzen dira, eta hori gertatu daiteke, esaterako inork egin nahi ez dituen lanetan, egun edozeinek oinarrizko beharrak asetzeko burutzen dituelako, baina *OUE* egonez gero enpresaburuek lanbide horietako soldatak igo izan beharko dituzte herritarrek lan horiek egin ditzaten.¹³¹

¹²⁶ RAVENTÓS, D. (2021). La renta básica...”, *Op. Cit.* 154-161 orr.

¹²⁷ GARZÓN, E. (2021-01-30). Monográfico. la renta básica, críticas y réplicas. *Revista internacional de pensamiento político.* 91-108 orr.

¹²⁸ RALLO, J.R. (2015). *Contra la renta básica, por que...* Op. Cit. 450 orr.

¹²⁹ STANDING, G. (2018) *La renta básica un derecho...*Op. Cit. 134 orr.

¹³⁰ RODRIGUEZ-ROJO, J. (2021-01-30). Monográfico. la renta básica, críticas y replicas. *Revista internacional de pensamiento político.*

¹³¹ RAVENTÓS, D. (2021). “La renta básica...”, *Op. Cit.* 55-60 orr.

Aurreko kritikez gain, badago kritika gorena bat, OEU aurkari guztiek partekatzen dutena, zera da, OEU finantziatzeko ezintasuna. OEU finantziatzea ezinezkoa dela diote, horretarako beharrezkoa den kostua oso altua delako, eta estatu espainolak pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta balio erantsiaren gaineko zergaren bitartez eskuratzen duena nahikoa ez delako.¹³² Ostera badaude estatu espainolean OEU finantzaketa posiblea delaren alde daudenak, horretarako ezinbestekoa izanik pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren erreforma fiskala burutzea. Beharrezkoa izango da ere OEU baino zenbateko txikiagoa daukaten diruzko prestazio publiko guztiak ordezkatzeko, eta OEU zenbatekoa diruzko prestazio publikoa baino txikiagoa denean OEU osatua izatea. Honi pare bat ezaugarri tekniko gehiturik OEU finantzaketa posiblea izango da.¹³³

OEU jasotzen dituen kritika gehienak ezagututa, OEU ezartzeko oztopo handiena finantzaketarena dirudi. OEU finantziatzea ezinezkoa dela diotenei agian gogoratu behar zaie Nazio Batuen Erakundeak esandakoa OEU ezartzearen inguruan, OEU ezartzearen alternatiba erradikalen taldeen, iskanbila sozialak, gatazkak eta izugarritzko migrazioen ugaritzea delako.¹³⁴

Espanian ezartzen den lehenengoetako oinarritzko errenta bat izatea ez du lagunduko ezartzerako orduan, askoren ustez erabaki oso arriskutzua delako. Beraz OEU praktikan Estatuan eraginkorra den edo ez jakiteko erabilgarria izan daiteke oinarritzko errenta partzial bat bere ordezkari izatea, zenbatekoan oinarritutakoa, OEU ezaugarri berdinekin. Horrela OEU batek izango dituen emaitzak eskala txikian ezagutuko direlako.¹³⁵

¹³² RALLO, J.R. (2015). *Contra la renta básica, por que...* Op. Cit. 425-440 orr.

¹³³ RAVENTÓS, D. (2021). “*La renta básica...*”, Op. Cit. 81-86 orr.

¹³⁴ NAZIO BATUEN ERAKUNDEA. *Noticias ONU: Los argumentos a favor ...* Op. Cit.

¹³⁵ VAN PARIJS, P., VANDERBORGHT, Y. (2017). *Ingreso básico una propuesta...* Op. Cit 216-220 orr

8. Konklusioak

Lan honetan, Espainiako Estatuan pandemiak areagotutako herritarren arteko desberdintasuna murrizteko, zein oinarrizko errenta izan daitekeen eraginkorrena aztertu da abiapuntutzat indarrean dagoen Bizitza gutxienezko errenta hartuz. Beraz, bizitza gutxienezko errentaz gain partaidetza errenta, bigarren txekaren errenta, zerga negatiboaren errenta eta oinarrizko errenta unibertsala alderatu dira.

Oinarrizko errenta ezberdinen aldeko eta kontrako aditu askoren iritzia irakurrita eta lan honetan egindako azterketaren ondoren, *Oinarrizko Errenta Unibertsalaren* alde kokatzen dut nire burua dudarik gabe. Errenta honi esker bizitza ekonomikoan, kulturean, sozialean eta politikoan herritar guztiek parte hartuko dute, errentaren bitartez jasoko duten independentzia eta segurtasun ekonomikoak aukera emango dielako herritarrei, bereziki errenta jaso aurretik behar egoeran zeudenei, haien ikasketak gehiago garatzeko eta partaidetza kultura handitzeko, horren eraginez ere haziko da haien partaidetza politikoa beraien errealitatea politikan ordezkaturik egotea lortuz. Horrez gain, bereganatuko duten segurtasun ekonomikoari esker enpresetako jabeekin negoziatzeko aukera izango dute lan baldintza hobekoak irabaziz.

Badago beste errenta bat orain dela 10 urte inguru eraginkorra izango zena, bigarren txekaren kasua da hau. Bigarren txekak langabezian dagoen jendea lanean jartzen duelako postu horretan zeuden langileei lanaldia erdira murriztuz, konpentsazio gisa transferentzia bat jasotzen dutelarik. Era horretan langabezian dauden pertsonentzat diru sarrerak haziko dira eta lanaldia murriztu dutenen kasuan aisialdia haziko da, kulturazko ekintzetan gehiago parte hartzeko aukera irabaziz. Baina errenta hau gaur egun ezartzearen arazoa robotizazioa izango litzateke, langabezian dagoen jendea ezingo zelako lanean jarri makinak burututako lanak direlako.

Errenta eraginkorrenak zeintzuk diren aipatu ondoren, herritarren arteko berdintasuna lortzen laguntzen ez duten oinarrizko errentak jorratuko ditut. Talde honetan aurkitzen dira Bizitza gutxienezko errenta, partaidetza errenta eta zerga negatiboaren errenta.

Esaterako, bizitza gutxienezko errentaren kasuan, errenta ezartzen duen 20/2020 lege dekretuan helburu gisa, konstituzioko 9.2 artikuluan aipatzen diren bizitza sozial eta ekonomikoan herritar guztien partaidetza bermatzea eta lan eta hezkuntza eremuetan errekurso falta eta aukeren arteko erlazioa ezabatzea aurreikusitako arren, praktika ez dator bat dekretuak dioenarekin. Izan ere, errenta honengaitik hartzaileek jasotzen duten zenbatekoarekin arazoak izaten dituzte haien oinarrizko beharrak asetzeko. Gainera

errentaren zenbatekoa txikia izateaz aparte hartzaile kopurua txikia da, errenta jasotzeko burutu behar den prozedura oso korapilatsua delako.

Partaidetza errenta ere ez du laguntzen herritarren berdintasuna lortzen, errentaren onuradun gehienak, gizartetik bazterturik daudenak izan beharrean, egoera ekonomiko ona duten pertsonak dira. Haiek direlako errenta jasotzeko baldintza betetzen dutenak, gizartean parte hartzea, hala nola lanean, formakuntzetan ari direlako. Partaidetza errenta besberdintasuna gehiago haztea eragiten du.

Errentaren gaineko zerga negatiboa ezartzekotan bere eragozpenik handiena zenbatekoa oso txikia izatea izango litzateke, egungo txirotasun tasa oso handia denez, onuradun asko egongo zirelako. Izan ere, errenta honetan onuradun kopurua hazten den heinean zenbatekoa murrizten delako. Ondorioz, gaur egun ezinezkoa litzateke errenta hau eraginkorra izatea herritar guztien partaidetza zein prekarietatea jaistea lortzeko.

Espainiako Estatuan lekua daukan oinarrizko errenta unibertsalera bueltatuz, aipatu beharra dago konstituzioko 40. artikuluan duela lekua, botre publikoen trsna giza aurrerapen ekonomiko eta soziala eta errentaren birbanaketa zuzen bat lortuz.

Aditu askoren ustez, oinarrizko errenta unibertsala Estatuan ezartzea oso arriskutsua izan daiteke, bere kostearengatik, praktikan eraginkorra izango den ezagutzen ez delako. Izan ere, *Oinarrizko errenta unibertsalaren* finantziaketa hura martxan ez jartzeko ezintasun handienetako bat da.

Beraz, praktikan oinarrizko errenta unibertsala Estatuko desberdintasunarekin, txirtasunarekin, langabeziarekin, prekarietatearekin amaitzeko eta herritar guztien partaidetza lortzeko errentarik eraginkorrena dela frogatzeko, egokiena oinarrizko errenta partzial bat ezartzea izango da kopuruan oinarritutakoa, *oinarrizko errenta unibertsalak* dituen ezaugarri berdinekin. Horrela eskala txikian *Oinarrizko errenta unibertsalaren* emaitzak positiboak edo negatiboak diren jakingo dugulako, pandemiak estatuan eragindako efektuei aurre egiteko.

9. Bibliografía

Liburuak eta Aldizkariak:

ALONSO PEREZ, MATILDE. FURIO BLASCO, ELIES. (2010). La economía española del crecimiento a la crisis pasando por la burbuja inmobiliaria. *Cahiers de civilisation espagnole contemporaine*. N.6.

ANDRADE RUBIO, KARLA LORENA. (2012). *Exclusión social y emigración en el ejido de San Pablo*. Universidad autónoma de tamaulipas. 63 orr.

ARCARONS, JORDI., RAVENTÓS, DANIEL., & TORRENS, LLUIS. (2017). Sobre algunas críticas a la renta básica incondicional: ¿miedo a la libertad? *Sin Permiso*. 18-22 orr.

ATKINSON, ANTHONY BARNES. (2015). *Inequality: What can be done ?*. Harvard university press. 230-240 orr.

ATKINSON ,ANTHONY BARNES. (2017-12-06). Reducing poverty and inequality through tax-benefit reform and the minimum wage. *Springer*. 308orr.

ATKINSON, ,ANTHONY BARNES. (1996). The case for a participation income. *The political quarterly publishing*. 1-4 orr.

COLINO, ALBERTO., CARRILO MARQUEZ, DOLORES., NAVAU MARTÍNEZ-VAL, PILAR., RAMOS LLANOS, ANTONIO JAVIER., REY PEREZ, JOSE LUIS., VANDERBORGHT, YANNICK. (2015). Sostenibilidad del Estado de Bienestar en España. *Dykinson*, 109-116 Orr.

FUENMAYOR FERNANDEZ. AMADEO., GRANELL PEREZ. RAFAEL. (2017-01). Implantación de un impuesto negativo sobre la renta microsimulación de su coste neto y efectos sobre la pobreza y la desigualdad. *Instituto de estudios fiscales*. 14-20 orr.

GARCIA PEREZ, CARMEN LEONOR. (2021-01-30). Monográfico. la renta básica, críticas y réplicas. *Revista internacional de pensamiento político*. 15. 79-90 orr.

GARZÓN ESPINOSA, EDUARDO. (2021-01-30). Monográfico. la renta básica, críticas y réplicas. *Revista internacional de pensamiento político*.)15. 91-108 orr.

GAVARA DE CARA, JUAN CARLOS. (2010). *La dimensión objetiva de los derechos sociales*. Bosch editor. 47-57 orr.

GONZALEZ ORTEGA, SANTIAGO., BARCELON COBEDO, SUSANA., (2020), *El ingreso mínimo vital comentarios al real decreto-ley 20/2020, de 29 de mayo*, Tirant lo blanch, 27-28 orr.

GORZ. ANDRE. (1991). *Metamorfosis del trabajo búsqueda del sentido crítica de la razón económica*. Ediciones sistema. 294-297 orr.

- GORZ, ANDRE. (1994). Salir de la sociedad salarial. *Debats. revista de cultura, poder y societat*. 62-66 orr.
- IGLESIAS BAREZ, MERCEDES. (2010). *Estructura orgánica y derechos fundamentales en la constitución española de 1978*. Ediciones Universidad de Salamanca. 310-311 orr.
- LEÓN LLORENTE, CONSUELO. (2019-12-18) Robotización, ¿solo cambiará el empleo?. *Empresa y Humanismo*, 23 N.1.10-13 orr.
- MARTINEZ ALVAREZ, JOSE ANTONIO. (2002-08-02). El impuesto negativo sobre la renta una solución novedosa y eficiente a la pobreza. *Estudios de economía aplicada*. 450-470 orr.
- MARTINEZ ALVAREZ, JOSE ANTONIO. (2010). *La escalera de jacob análisis de la viabilidad del impuesto negativo sobre la renta*. Tirant lo Blanch. 183-185 orr.
- MONEREO, MANOLO. ILLUECA, HECTOR. (2017). *España un proyecto de liberación*. El viejo topo. 122-137 orr.
- MORENO MARQUEZ, GORKA. (2008). *Crisis y reconstrucción del estado del bienestar las posibilidades de la renta básica de ciudadanía*. Eusko jaurlaritz. 139-143 orr.
- NAZIO BATUEN ALBISTEAK. Los argumentos a favor de una renta básica universal.
- PARKIN, MICHAEL., POWELL, MELANIE., MATTHEWS, KENT., (2013)., Introducción a la Economía. *Pearson Educación*. 23orr,
- RALLO, JUAN RAMON. (2015). *Contra la renta básica, por que la redistribución de la renta restringe nuestras libertades y nos empobrece a todos*. Deusto. 444 orr.
- RAVENTÓS, DANIEL.(2021). *La renta básica por qué y para qué*. Catarata. 19-23 orr.
- RAVENTÓS, DANIEL. (2007). *Las condiciones materiales de la libertad*. El viejo topo. 160-162 orr.
- REY PÉREZ, JOSE LUIS. (2020-08-25). Renta básica universal. *Eunomia*, 237–257 orr.
- RIDAURA MARTÍNEZ MARIA JOSEFA. *La protección y garantía de las libertades y derechos fundamentales*. Tirant lo Blanch. 8-16.
- RODRIGUEZ ROJO, JESUS. (2021-01-30). Monográfico. la renta básica, críticas y réplicas. *Revista internacional de pensamiento político*. 109-120 orr.
- STANDING, GUY. (2018). *La renta básica un derecho para todos y para siempre*. Pasado y presente. 13 orr.
- SCHJOEDT, RASMUS. (2016). *India's Basic Income Experiment* (N.o 21). Development Pathways Limited. 1-9 orr.

TENA, ALBERTO. (2018-11-14). La Renta Básica Universal basada en la evidencia. *Política y Sociedad*, 55 (3). 851-871 orr.

UNIR. (2020-2-7). Tipos de fracaso escolar, ¿cuáles son las causas y cómo prevenirlo. *Unir Revista*. 5-12 orr.

VAN PARIJS, PHILIPPE., VANDERBORGHT, YANNICK. (2017). *Ingreso básico una propuesta radical para una sociedad libre y una economía sensata*. Grano de sal. 216-220 orr.

Legeak:

20/2020 errege dekretua ezartzen duen Bizitzeko Gutxienezko Errenta Espainiako Aldizkari Ofizialean 2020ko maiatzaren 29an argitaratutakoa

Espainak berretsitako 1966ko abenduaren Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna

Espainiako Konstituzioa Espainiako Aldizkari Ofizialean 1978ko abenduaren 29an argitaratutakoa

Webguneak:

ARRIVI, ANGEL., ABRIL, ANA. Cáritas insta a corregir las trabas de acceso al Ingreso Mínimo Vital que excluyen a numerosos perceptores. Caritas. <https://www.caritas.es/main-files/uploads/2021/05/27mayo21.pdf>. (Kontsultatua 2021.06.01).

BANERJEE, ABHIJIT., FAYE, MICHAEL., KRUEGER, ALAN., NIEHAUS, PAUL., SURI TAVNEET. *Effects of a Universal Basic Income during the pandemic*. GiveDirectly. https://econweb.ucsd.edu/~pniehaus/papers/ubi_covid.pdf.

BIEN. *About BIEN*. <https://basicincome.org/about-bien/>. (Kontsultatua 2021.03.15).

ESTADISTIKAKO INSTITUTU NAZIONALA (INE). *Encuesta de población activa, primer trimestre de 2021*. https://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736176918&menu=ultiDatos&idp=1254735976595. (Kontsultatua 2021.05.14).

EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEA. *Vida Social*. https://www.eustat.eus/documentos/opt_0/tema_173/elem_3237/definicion.html. (Kontsultatuta 2021.05.22).

FUNDACION LA CAIXA. “El perfil del consumidor de cultura español es similar al europeo”, *El Observatorio Social*, <https://observatoriosociallacaixa.org/-/entrevista-victor-fernandez-blanco>. (Kontsultatuta 2021.05.10).

Fundación Rais. *Sr. Escrivá, para el sinhogarismo el Ingreso Mínimo Vital no funciona..* <https://hogarsi.org/escriva-sinhogarismo-ingreso-minimo-vital>. (Kontsultatua 2021.05.1).

KANGAS, OLLI., JAUHAINEN, SIGNE., SIMANAINEN, MISKA., & YLIKANNO, MINNA. *Evaluation of the Finnish Basic Income Experiment* (2020:15). The Ministry of Social Affairs and Health. https://julkaisut.valtioneuvosto.fi/bitstream/handle/10024/162219/STM_2020_15_rap.pdf?sequence=1&isAllowed=y. (Kontsultatuta 2021.03.21).

MADRID, CAROLINA. *Historia de la Renta Básica Universal*. elquintopoder. <https://www.elquintopoder.cl/economia/historia-de-la-renta-basica-universal/> . (Kontsultatuta 2021.02.24).

MINISTERIO DE EDUCACION Y FORMACION PROFESIONAL. *La tasa de abandono escolar en España alcanza su nivel más bajo desde que se tienen datos*. Gobierno de España. <https://www.educacionyfp.gob.es/prensa/actualidad/2020/01/20200128-epaabandono.html>. (Kontsultatuta 2021.03.21).

ORDENANA, CARLOS. *La federación de bancos de alimentos alerta de que la demanda de alimentos ha aumentado 50% en el último año*. Bizkaiko elikagaien bankua. <https://www.bancali-biz.org/la-federacion-de-bancos-de-alimentos-alerta-de-que-la-demanda-de-alimentos-ha-aumentado-un-50-en-el-ultimo-ano/>. (Kontsultatua 2021.04.27).

PILOTPROJEKT GRUNDEINKOMMEN. *Asi es como funciona*. https://www-pilotprojekt--grundeinkommen-de.translate.goog/studie1?_x_tr_sl=de&_x_tr_tl=es&_x_tr_hl=es&_x_tr_pto=ajax,se,sc. (Kontsultatuta 2021.06.10).

TRUJILLO CARMONA, MANUEL., GOMEZ FORTES, BRAULIO, *La segregación electoral interurbana en España. Relación entre participación y renta* (N.o 8). Fundación Foessa. <https://www.foessa.es/main-files/uploads/sites/16/2019/05/3.4.pdf>. (Kontsultatuta 2021.03.14).

UGT. *Hamar pertsonatik lauk lan prekarioa dute*. <https://www.ugt.es/cuatro-de-cada-diez-personas-tienen-trabajos-precarios>. (Kontsultatuta 2021.05.17).